


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **DURANGALDEKO PSIKOMOTRIZITATEAREN**

## **EGOERA GAUR EGUN**

### **GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILEA:** Ramírez Mintegui, Jon Mikel.

**ZUZENDARIA:** Zuazagoitia Rey-Baltar, Ana.

**GRADUA:** Haur Hezkuntzako Gradua

**Gasteizen, 2019ko ekainaren 10ean**

## LABURPENA

---

Psikomotrizitatea gure eskoletan denbora gutxi daraman praktika da. Praktika honek umearen garapen integrala bermatzen laguntzen digu, baina gaur egungo irakasleek prest ahal daude horrelako praktikak aurrera eramateko? Zein jarduera motor erabiltzen dituzte praktika horietan umearen garapenerako? Lan honek emandako aukera baliatuz, Durangaldeko maisu-maistra batzuei psikomotrizitateari buruz daukaten iritziei eta praktika bera martxan jartzeko dauzkaten estrategiei buruz galdetu egin zaie. Horretarako, datuak biltzeko tresna bezala galdetegi bat eraiki da, metodologia mistoa izanik, hau da, kualitatibo-kuantatiboa. Laginak sei ikastetxe ezberdinetako zazpi irakaslek osatzen dute eta bertatik lortutako emaitzak azterketa konparatibo eta ebaluazio bat egitea ahalbidetu dute Gradu Amaierako Lanean finkatutako helburuen arabera. Emaitzak, aldiz, paradoxa batzuk agerian usten ditu irakasleen prestakuntzari eta egungo ikastetxeetako baldintzei buruz.

**Hitz gakoak:** Psikomotrizitatea; Psikomotrizitatearen Onurak; Haur Hezkuntza; Psikomotrizitatearen Egoera; Jolasa.

## ABSTRACT

---

Psychomotricity is a practice that takes little time in our schools. This practice helps us to guarantee the comprehensive development of the child, but are today's teachers ready to carry out such practices? Which motor activities do they use in these practices for the development of the child? With the opportunity given to this work, teachers from the Durangaldea have been asked about the opinion of the psychomotricity and their strategies to start it. To do this, a quiz was created as a data gathering tool, with a mixed methodology, that is, qualitative-quantitative. The sample consists of seven teachers from six different schools and the results obtained from it have made possible a comparative analysis and evaluation in accordance with the objectives established in the Final Project. The results, on the other hand, show some paradoxes about the training of teachers and the conditions of current schools.

**Key Words:** Psychomotricity; Psychomotor Benefits; Infant Education; State of Psychomotor; Game.

## AURKIBIDEA

---

<b>LABURPENA</b> .....	1
<b>AURKIBIDEA</b> .....	2
<b>SARRERA</b> .....	4
<b>MARKO TEORIKOA</b> .....	5
Zer da Psikomotrizitatea .....	5
Psikomotrizitatearen Bilakaera .....	7
Españako Psikomotrizitatearen Bilakaera eta Psikomotrizisten Lana .....	9
<i>Psikomotrizitatearen eta psikomotrizisten egoera Espainian gaur egun</i> .....	11
Psikomotrizitatearen Onurak Haur Hezkuntzan .....	13
Jolasaren garrantzia .....	15
Jarduera Motorrak Haur Hezkuntzan .....	17
Psikomotrizistaren Rola eta Esku-Hartzea .....	20
<b>HELBURUAK</b> .....	23
Helburu Nagusia .....	23
Azpi-Helburuak .....	23
<b>METODOLOGIA</b> .....	24
Galdetegiaren Justifikazioa eta Diseinua .....	24
Erabilitako Tresnak .....	25
Kategorien Definizioa .....	25
Lagina .....	25
Prozedura .....	26
<b>EMAITZAK</b> .....	28
Irakasleen Profila .....	28
Praktika Psikomotorren Ezaugarriak .....	29
Irakasleek Praktikan Jartzen Dituzten Jarduera Motorren Ezaugarri Nagusiak .....	30
Psikomotrizitatearen Egoerari Buruz Duten Iritzia .....	32
Jarduera Motorrak Aurrera Eramateko Kapazitatea Ezagutzen .....	34
<b>ONDORIOAK</b> .....	36

Irakasleen Profila .....	36
Praktika Psikomotorren Ezaugarriak.....	36
Irakasleek Praktikan Jartzen Dituzten Jarduera Motorren Ezaugarri Nagusiak .....	37
Psikomotrizitatearen Egoerari Buruz Duten Iritzia .....	39
Jarduera Motorrak Aurrera Eramateko Kapazitatea Ezagutzen .....	40
<b>MUGAK ETA HOBEKUNTZA PERTSONALAK .....</b>	<b>43</b>
Mugak.....	43
Hobekuntza Proposamenak .....	43
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>45</b>
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>50</b>

## SARRERA

---

Haur hezkuntzako profesionalek betebeharrak handia dute haurren garapen integralean, fisikoan zein kognitiboan. Baina gaitasun horiek lotzen dituen alorrari, hau da, psikomotritateari, eskoletan garrantzia ematen zaio? Gaur egungo hezitzaileak prest al daude psikomotritate saio bat aurrera eramateko? Zeintzuk dira erabiltzen dituzten jarduerak motorrak?

Praktikaldietako egonaldien bitartez ikusi da psikomotritate saioak aurrera eramateko ahulgune batzuk dituztela. Bertako maisu-maistrek ez zeukaten aurreformakuntza nahikorik psikomotritate proiektu bat aurrera eramateko eta 4 urteko gradu honetan denbora gutxi eskaintzen zaio praktika hain garrantzitsu honi. Jakina da, Psikomotritatea umearen garapen integralean laguntzen duen praktika dela, baina oraindik ere, profesional askok ez diote ematen behar duen garrantzia, ez direlako kontziente praktika on batzuk egitearekin batera garapen motorretik aparte garapen afektiboan, kognitiboan eta sozialean ere eragina duela, haien artean interdependentzia baitago. Praktika honen bitartez lortzen dena, azken finean, umea bere gorputza ezagutzea eta bere gorputzarekin mundua ezagutzeko aukera izatea da, baita besteekin harremanak izateko aukera ezin hobea. Bestetik, psikomotritateak umeak etorkizun batean izan ditzakeen alterazioak sahiesteko ere balio ditzake (Gutierrez, 2009).

Hau guztia kontuan hartuta, oraindik ere ez zaio ematen eman behar zaion garrantzia Psikomotritateari. Hori dela eta, Gradu Amaierako Lan hau eskeinitako aukera baliatuz, gai honen inguruan sakontzea erabaki da, gaur egungo psikomotrizisten egoera eta haien jarduerak aztertuz, heziketan eta, batez ere, psikomotritateko saioetan dauden hutsuneak argitzeko eta hausnartzeko asmoz. Horretarako, Durangaldean kokatuta dauden zenbait eskoletako irakasle batzuei galdetegi bat pasatuko zaie, haien formazioei, esperientziei, gaitasunei, jarduerak motorrei eta abarrei buruz galdetzeko asmoz. Horrek emango du informazioa zergaitik gaur eguneko praktikak ez duten funtzionatzen eta zer ari den txarto egiten, etorkizun hurbil batean horiei irtenbidea bilatzeko asmoz. Psikomotritatea aintzat hartu beharreko praktika izan behar delako, behar-beharrezko jarduerak, ez gaur egungo eskoletan egiten ari den ordubeteko praktika eskasa.

## MARKO TEORIKOA

---

### Zer da Psikomotrizitatea

Psikomotrizitate kontzeptua gure hezkuntza-ingurunean nahiko modernoa eta gero eta indar gehiago hartzen ari den praktika bat da, baina psikomotrizitateari buruz berba egiten dugunean zertaz ari gara? Zer esan nahi du psikomotrizitate terminoak?

Psikomotrizitatea garatzen ari den kontzeptua da. Bertan integratzen diren teoria anitzek aberastu egiten dutelako eta psikomotrizitatea praktikan jartzen ari diren sektore desberdinak ere garatzen ari direlako (Lazaro, Palomero eta Fernandez, 2000). Eboluzio honetan, psikomotrizitateak ikuspuntu berriak txertatuz joan da momentu historiko-zientifikoko joeren inguruan, ondorengo puntuan ikusiko dugun bezala.

Psikomotrizitatearen terminologia linguistiko bat egiterako unean, bi osagai dituela konturatuko gara, alde batetik, motrizitatea (mugimendua sortzen eta aipatzen duena) eta, bestetik, psikismoa (jarduera psikikoa, bi osagai dituena: sozio-afektiboa eta kognitiboa). Bi alde ezberdinak prozesu eta helburu bakarrerako: **pertsonaren garapen integrala**.

Ikuspegi zabalagoa izateko eta psikomotrizitatearen kontzeptu pertsonala lortzeko, psikomotrizitatean gaur egun lan egiten duten egileen definizioak aurkeztuko dira:

- Garcia eta Fernández (1994): “Psikomotrizitatea nahitako ekintza edo ekintza esanguratsuetan eragiten duten teknika multzoak dira, gorputz jarduera eta bere adierazpen sinbolikoa bitartekari gisa erabiliz”.
- Aucouturier (2004): “Adimena eta afektibitatea estuki lotuta daude gorputz esperientziarekin eta esperientzia motorrarekin, gorputza prozesu intelektualean oso inplikaturik dagoelako. Psikomotrizitatean haur bakoitzaren gorputzeko elkarrizketa (ideiak gorputzarekin adierazterako unean) funtsezkoa da norberarekin, besteekin eta objektuekin duen harreman prozesuaren adierazpenean”.
- Berruezo (1995): “Psikomotrizitatea hezkuntzaren edo terapeutikaren esku-hartzea da, haren helburua gorputzaren bitartez motrizitatearen, espresioaren eta sormenaren aukerak garatzea izanik”.

- Muniáin (1997): “Psikomotrizitatea diziplina hezigarria, berrezigarria, edo terapeutikoa da, elkarrizketa gisa ulertuta, gizakia unitate psikosomatiko gisa hartzen duena (Adimena / Gorputza)”.
  
- Arnáiz (1991): “Motrizitatea mugimenduaren exekuzioa da eta garunaren eta nerbio sistemaren mekanismo lokalizatuekin lotzen da. Hala eta guztiz ere, psikomotrizitatearen hitza pertsonaren osotasuna biltzen du, alderdi motor eta psikikoak barne dituela, azken horiek alderdi kognitibo eta emozionalean ulertuta eta kontuan hartuta pertsona gizarte baten barruan bizi dela, faktore sozialari ere so egin behar diogu”.

Definizioetan ikusi dugun bezala, haur batean mugimendua bere ezaugarri nagusia dela kontuan hartuta, psikomotrizitatea bere garapenean oinarritzakoa eta oso garrantzitsua den diziplina da. Haur batek inguruan duen hura mugimenduaren bidez esploratzen duelako eta horrela komunitzen da, elkar eragiten du beste ume edo heldu batzuekin, beraien emozioak erakusten ditu, etab. ikaskuntza kognitiboa osatuz. Berruezok (1999 eta 2001) dioen modura, pertsonaren ikuspegi globalean oinarrituta, testuinguru psikosozialean izateko eta adierazteko ahalmenean, psikomotrizitate terminoa elkarrekintza kognitiboak, emozionalak, sinbolikoak eta sensorimotoreak integratzen ditu.

Psikomotrizitateak, horrela definituta, nortasunaren garapen integralean funtsezko zeregina betetzen du. Kontzeptu horretatik abiatuta, esku-hartze psikomotor mota ezberdinak garatzen dira, adina edozein dela ere. Hauek izango ziren psikomotrizitatearen esku-hartze ezberdinetatik dauden kompetentzia ezberdinak (Taula 1ean ikusi daitekeen moduan):

**Taula 1: Berruezo, 2001. El contenido de la Psicomotricidad.**

PSIKOMOTRIZITATERAREN KONPETENTZIAK	
<b>Prebentzio eremua</b>	Honen helburua trastorno psikomotor edo emozionalen detekzioa eta prebentzioa arriskuan dauden populazioetan edo bizi-etapa zehatzetan.
<b>Hezkuntza eremua</b>	Hezkuntza curriculum jarraituz garapen psikomotorra erraztea da haren helburua.

<b>Terapia eremua</b>	Garapen psikomotorren nahasteen aurrean esku-hartze psikomotor bat egitea du helburu, baita emoziozko eta nortasun aldaketei buruz ere, diagnostiko baten bidez egindako proiektu terapeutiko batean oinarrituta.
<b>Prestakuntza, ikerketa eta irakaskuntza eremua</b>	Helburua jarduera profesionala garatzeko trebakuntza, gaitasun arloetan sakontzea eta praktika honi loturiko edukien transmisioa da.

Psikomotrizitatearen hezkuntza eremuko konpetentzia hezkuntza ulertzeko modu bat da, eboluzioaren psikologian eta pedagogia aktiboan (beste diziplinetan artean) oinarrituta, haurren izaera orokorra lortzea (garapen motorren, afektiboaren eta mentalaren garapen orekatua) eta kanpoko munduarekin (objektuen mundua eta besteen mundua) harremanak erraztea helburu duena (Mendiara, 2008).

Psikomotrizitatearen bidez umek inguruko munduarekin ezartzen duten harremana eta komunikazioa errazten dute, gorputz mugimenduaren domeinuaren bidez, baita objektuen bidez kasu askotan, aurreko parrafoan ikusi dugun modura. Psikomotrizitatearen kontzeptu global honen arabera haurra ekintzen eta mugimenduen bitartez elkar eragiten du munduarekin.

Beste alde batetik, eta Arnaizek (1991) dioen moduan, haurra ulertzea eta entzutea oso garrantzitsua da ere, errespetatzea eta bere globalitatean hartzea aurreko ezagutzetatik hazten laguntzeko. Psikomotrizitatearen ekintza ez da eraginkorra haurrari entzuten ez bazaio, nahasteen etiopatogenia<sup>1</sup> tratatzen ez bada edo tratamendua elkarrizketan oinarrituta ez badago. Arnaizek (1991) dionari jarraiki, haurren jarduera bat-batean oinarrituriko jarduera psikomotorea izan behar da, bere eskariari egokitutako erantzun batzuk proposatuz; haurren adierazpen askean eta psikomotrizistaren enpatian oinarritutako praktikak izanik.

## Psikomotrizitatearen Bilakaera

Psikomotrizitatea termino bezala oso gaztea da gure historian eta gaur egunerarte garatzen doa. XX. Mendean hainbat psikologo eta psikiatra irregulartasun mentalak eta sozialak garapen motorrekin erlazionatu zituzten. Hortik aurrera, haur hezkuntzako etapan, garapen motorrari garrantzi handiagoa emango zaio eta umek

<sup>1</sup> Gaixotasun baten jatorria eta bere mekanismoak.



jarduera honen bitartez mundua ulertzen joango dira, esperientziak bilduz eta arazoak zein ezinegonak konponduz (Durivage, 2005).

Parisen 1920. urtean ospatutako kongresu batean Enerst Dupré neurologoak psikomotrizitatea termino bezala erabili zuen lehenengoa izan zen, anomalia psikiko eta neurologikoa motrizitatearekin harremana zuela frogatuz (Berruezo, 2006 eta Durivage, 2005). Duprek gizakiaren bi aldeak batu nahian, urteetan zehar lehian ibili diren gorputza eta adimena, termino berria sortu egin zuen, hura zelako bere datu klinikoak azaltzeko modurik errazena:

*“Cuanto más se estudian los trastornos motores en los psicópatas, más se adquiere la convicción de la estrecha relación entre las anomalías psíquicas y las anomalías motrices como expresión de una solidaridad original y profunda entre el movimiento y el pensamiento”* (Dupré, 1925 Berruezok aipatua, 2006).

Kongresu hura izan zen abiapuntua, baina nahiz eta Duprek psikomotrizitate terminoaren sortzailea izan, ahultasun motorra ahultasun mentalaren markoan sartuz, Wallon izan zen psikomotrizitatearen aitzindaria. 1925ean *“L’Enfant turbulent”* (Umearen larritasuna) liburuarekin hasi zen benetako psikomotrizitatearen korronea (Berruezo, 2006). Bertan, Wallonek psikomotrizitatea psikismoaren eta motorraren arteko lotura dela azpimarratzen du, globalitate terminoa lehen aldiz azalduz, eta haurraren gorputz irudia eta eskema eraikitzeko mugimenduaren garrantziaz berba egiten du. Rigal-en (2006) arabera, Wallonek zioen, haurraren inguruko harremanen adierazpena psikeak eta motor trebetasunak irudikatzen zutela eta haurraren gorputza bere psikearen adierazpena zela.

Wallonen ideiarri tiraka, Berruezoren (2000a) arabera, Julián de Ajuriaguerrak 50eko hamarkadan gorputza kontuan harturiko heziketa proposatu zuen, horretarako, terapia tradizionalari erantzuten ez zioten ikasketa- eta jokabide-arazoak zituzten haurrei aurre egiteko berreziketa psikomotorra terapia asmatu zuen. Berreziketa psikomotorra postura garatzeko eta objektu bati behatzeko, hurbiltzeko, eskuaz jabetzeko eta manipulatzeko gaitasuna da, jarrera horren garapenean eta objektu horren manipulazioan elkarrizketa tonikoa kontuan hartuz.

Ajuriaguerrak erabiltzen zuen psikoterapia elkarrizketa tonikoan oinarritzen zen gaixoaren eta psikoterapeutaren arteko bi noranzkotako erlazioa zuena. Emozioen eta gorputzaren tonu muskularraren artean harreman estua zegoela nabarmendu zuen, jadanik ama-semearen erlazioan sumatzen zena, eta gaixoaren tentsioak eta gorputzaren blokeoak aztertzen eta ulertzen saiatzen zen.

Ajuriaguerraren eskutik, 1962an, Berreziketa Psikomotorrerako Gaitasunaren Ziurtagirirako prestakuntzak eman eta 1963an legez onartu zuten (Berruezo, 2006). Hortik aurrera psikomotrizitatearen garairik onenak datoz. Alde batetik, berreziketa psikomotorrean (psikomotrizitatearen alde klinikoan) Zazzo, Haurren Psikobiologiako Laborategian Wallonen lanekin ikertzen jarraitzen zuen eta heziketa psikomotorra garatzen joan zen, hainbat adituekin batera, hala nola, Soubiran, Diatkine, Stambak edo Jolivet (Berruezo, 2000a eta 2006). Berruezoren ikerketarekin jarraituz (2000a eta 2005), 1974an korrante klinikoak prestakuntzaren aintzatespen ofiziala lortzen du Psikoberrezitzaile Estatuko Diploma sortzearekin, geroago (1985) Psikomotrizistaren Estatuko Diploma izendatu zutena. Beste alde batetik, ez dugu ahaztu behar hezkuntza fisikotik sortutako hezkuntza korrontea, Picq, Le Boulch, Lapierre eta Aucouturierenak. Izan ere, nahiz eta Frantzian arrakasta gutxi izan korrante ofizialetik (klinikoa) aldendu zirelako, praktika psikomotor horiek herrialde askotan eskola sortu zuten, eta 1968-an Vayerrek, Lapierrek eta Aucouturierrek Frantziako Hezkuntza eta Berreziketa Psikomotrizita sortu zuten (Fonseca, 1998) (Berruezok aipatua, 2006).

### **Españako Psikomotrizitatearen Bilakaera eta Psikomotrizisten Lana**

Psikomotrizitatea Espainian apurka-apurka irekitzen hasi zen hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, hainbat bideren bitartez. Editorialarena izan zen bide bat, idazle frantsesen lanen argitalpenengatik gure interesak piztu baitziren. Beste bide bat hezkuntzarena izan zen, ikastaro espezifikoak eta mintegiak antolatuz. Honek onarpen klima sortu zuen eta Nazioarteko Psikomotrizitatearen Erakundeak 1980an Madrilen Psikomotrizitatearen Nazioarteko Kongresua ospatzera eraman zuen. Psikomotrizitateak, hasieran, egitura zaharren aldaketaren oinarria ezarri zuen batez ere hezkuntzaren esparruan, bere garapenak bide hori hartuz, hezkuntzaren bidea, alegia (Berruezo, 1999b, 2000a, 2001 eta 2005)

Berruezok dionez (1999b, 2000a, 2001 eta 2005), ikuspegi desberdinak sortzen hasi ziren lan eta prestakuntza ildo batzuk sendotuz, zoritxarrez, ikastetxe edo joera ezberdinetan hezitutako psikomotrizisten artean etengabeko gaizki ulertuak egoten hasi ziren. Eztabaida eta ikuspegi trukatuta ez ziren sustatu eta, horrek, profesionalen banaketa eta korporatismo falta eragin zuen.

Ezberdintasun horiei gehitzen badizkiogu lanaren esparrua zehazteko zailtasunak beste profesional batzuekin, esate baterako, fisioterapeutak edo hezkuntza fisikoko irakasleekin, psikomotrizitatearen trebetasunen gainean gatazka eta borroka dialektikoak eragin zituenak, baita nahaste terminologikoa egon zela psikomotrizitatea

ulertzerako orduan: diziplina (mugimenduaren zientzia), teknika (praktika edo psikomotrizitate terapia) edo gorputzeko jarduera (psikomotrizitatea), edo administrazioan kontraesanak egotea psikomotrizitate plazak ateratzerako unean eta ez egotea lanbide hori burutzeko titulazio puntualik edo gizarte-zerbitzuen sistemak babestutako prestazioen artean terapia psikomotorra onartzea, ezin denean terapeuta bihurtu herrialdeko edozein fakultatean edo unibertsitateko eskolan, ulertu ahal da psikomotrizitateak ez duela lanbide gisa arrakasta eduki unibertsitate sisteman (Berruezo, 1996, 1999a eta 2001).

Beste alde batetik, Europako Psikomotrizitatearen Foroa Europako herrialde askotan batasunaren interesak piztu zuen txinparta izan zen, baita ere Espainian. Nazioarteko bileretan parte hartu ondoren Espainiar psikomotrizistek bat egin behar zuten eta batasunerako proposamenak egitea pentsatu zen. Psikomotrizitate elkarteak harremanetan jarri ziren eta Zaragozan ospatu zen lehen bileran, 1996ko otsailan, psikomotrizisten federazioen elkarte nazionalaren konstituzioa lantzen hasi ziren; psikomotrizitatea eta psikomotrizistak hedatzeko eta defendatzeko ahaleginak koordinatuz. Talde hau osatzen duten elkarteak hauek dira (taula 2an ikusi daitekeen modura):

**Taula 2: Berruezo, 1999b. El psicomotricista, un profesional para las necesidades especiales**

<b>Estatu Espainiarreko Psikomotrizisten Elkarten Federazioak</b>
Kanarietako Psikomotrizitate Elkarte
Espainiako Estatuko Psikomotrizitateen Elkarte
Espainiako Psikomotrizitateko Elkarte
Psikomotrizitatea praktikatzeko Garapenerako Elkarte
Espainiako Psikomotrizitate Profesionaleko Espainiako Gortea
Psikomotrizitateko Elkargo Profesionala

Ikusi dugunaren arabera psikomotrizitatearen egoera eskasa da, baina Berruezok (1999b eta 2000a) bere lanetan argi izpi batzuk botatzen ditu. Lanaren arloan espezifikotasuna dagoela uste du, non guztiz justifikatzen du berezko gaitasunen bat duen profesional baten existentzia. Psikomotrizisten lana prebentzioaren edo hezkuntzaren arloan garatuko litzateke, beredukazio edo terapia moduan, eta administrazioak psikomotrizistek osasun zerbitzu batzuetan, hezkuntzan edo gizarte zerbitzuetan sar lieke. Beste herrialde batzuetan, batez ere Frantzia,

gizartea konbentzitu dute profesional baten beharra dagoela, gorputzarekin lan egiten duena, zeregin multzo bati edo zenbait arazoei aurre egiteko.

Berruezok (1999b) dio, Europako Psikomotrizitatearen Foroan koordinazio ahaleginak eta ordezkaritza bateratua hartzeaz gain, Federazioa egin aurretiko urrats gisa, psikomotrizisten profil profesionalaren gainean lan egin zela, proiektu komunak eraikitzeko oinarrizko adostasuna zuena, horien artean, curriculum baten garapena psikomotrizisten prestakuntzarako, hezkuntza administrazioei eskaini zaiena horren eztabaidarako. Hori dena egin da, Berruezoren hitzetan (2000a): "Jakin badakigulako, gure herrialdean, lanbidea sortzeko modu bakarra titulazio baten sorrera delako". Berruezok argi dauka psikomotrizitatean espezifikotasun bat dagoela eta psikomotrizista esku-hartzeko profesional kualifikatua izan behar duela, gorputza eta mugimendua kontuan hartzen duena, behar bereziak (ez eskusiboki hezkuntza arloan) dituen pertsona gidatzeko, garapenaren helburuak eta haien ongizate pertsonala lortzeko.

### *Psikomotrizitatearen eta psikomotrizisten egoera Espainian gaur egun*

Psikomotrizitatea ez da unibertsitateko gradua eta ez dago titulazio ofizialik psikomotrizista gisa jarduteko, ondorioz, psikomotrizista bezala lan egiteko aukerarik ez dago, gure herrialdean praktikatzen diren lanbideen katalogoan ez delako aurkitzen (ez dago inolako modurik psikomotrizista lanetan jarduteko aukera ematen duen diploma ofiziala duzula justifikatzarik).

Fakultate batzuetan, psikomotrizitatearen materia, curriculumean integratuta agertzen dena, "garapen motorra" (EHUn bezala), "beredukazioa teknikak" edo antzeko beste estilotako izenekin jorratzen da. Izan ere, psikomotrizitatearen alorrean gure herrialdean jaso dezaketen formaziorik zehatzena ikastetxe edo zentro pribatuen esku dago eta graduondoko prestakuntza gisa sortzen diren diplomak lanbide heziketaren helburuetarako balio ofizial eza dute (Berruezo, 2000a, Palomero, 2007).

Heziberri 2020 curriculumak ere, «Norberaren nortasunaren eta ingurune fisiko eta sozialaren eraikuntza» eta «Norbere nortasunaren eta komunikazioaren eraikuntza eta irudikapena» esperientzia-eremuen bidez oinarrizko diziplina-kompetentzietan, kompetentzia motorra ageri da. Bertan, Heziberrik dio: "Haurrak, jarduera motor kontzientearen bidez, bere nortasun propioa eraikitzen du, bere gorputza ezagutzen du eta hura adierazpen-bitarteko moduan erabiltzen, gorputz-egitura osatzen du, denbora-errealitatea

bizi du, eta kanpo-munduaz eta gainerako pertsonekin harmonian konpartitu behar duen espazioaz jabetzen da. Kanpo-munduan «den bezala» adierazteko aukera ematen dio gorputz-adierazpenak haurrari, eta horretarako, keinuak, aurpegierak, mugimenduak, gorputz-jarrerak, ukimena eta antzeko baliabideak erabiltzen ditu. Baliabide horien bidez, ideiak eta emozioak adierazten ditu, eta egokitasunez interpretatzen eta balioesten ditu gainerako pertsonen adierazpenak” (Heziberri 2020, 237/2015 Dekretua).

Baita, Heziberri 2020rekin jarraituz, «Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» esperientzia eremuko etapako helburuetan psikomotrizitatearen eduki asko jorratzen dira, hala nola, ohartzea norbera pertsona berezia dela eta nork bere buruaren gaineko irudi orekatu eta positiboa osatzea, norberaren nortasuna eraikitzeke edo gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko (Heziberri 2020, 237/2015 Dekretua).

Haur hezkuntzako curriculumaren edukiak, ikusi dugunaren arabera, honelako gaiak biltzen ditu, hala nola, gorputza eta bere irudia; jokoa eta mugimendua; jarduera motorrak eta eguneroko bizitza; gorputz adierazpena, psikomotrizitatearekin nahiko lotuta daudenak, nahiz eta curriculum honetan "psikomotrizitate" edo "psikomotrizista" hitzak behin ere ez egertu. Berruezoren arabera (1999b) Haur Hezkuntzako goi-teknikari titulua ezartzen duen Errege Dekretuan (BOE 22/02/96), Lanbide Heziketako Ikastaroei dagozkienak, psikomotrizitatearen praktika aitortzen du, profesional honi psikomotrizitate heziketa aplikatzeko gaitasuna aitortuz, gizakiaren esplorazioaren beharra bera eta bere ingurunea ezagutzera daramana. Administrazioaren paradoxak, psikomotrizitatearen eta psikomotrizisten inguruan, dio Berruezok (1999b).

Baina, gaur egun arazoa da umearen garapenerako oraindik ez zaiola garrantzia ematen praktika psikomotorrari. Profesional ugari ez dakitelako psikomotrizitatea oso garrantzitsua dela bizitzako lehen urteetan. Horregatik, hezkuntza zentroetan ez da praktika hau ongi lantzen, ezta eman behar izango litzaiokeen baliorik ematen ere (Consejo, 2010). Baita ere, irakasle askok oraindik ez dute pentsatzen haurrek jolasaren bitartez modu naturalean ikasi ahal dutela. Are gehiago, esperientzia hau are garrantzitsuagoa eta motibagarriagoa izan dadin, ez dugu ahaztu behar haurren garapen

integralerako oinarrizko eta ezinbesteko baliabidea Haur Hezkuntzan jolasa dela (Otero, 2009), ondorengo puntuan ikusiko dugun moduan.

Azken finean, psikomotrizitatea hezkuntza praktika on bat bihurtu ahal izateko, irakaslearen jarduna funtsezkoa da. Gaur egun, gero eta interes handiagoa dago psikomotrizitatearen alorrean; horregatik, gai horri buruzko prestakuntza-programak garatzen ari dira, irakasleen hasierako prestakuntzan oso eskasa delako. Unibertsitateko testuinguruan, adibidez, graduondoko programak egiten ari dira: unibertsitateko espezialistak eta masterrak. (Viscarro, Antón eta Cañabate, 2012).

Esandako guztia borobilduz, Berruezoren (2000) hitzak berreskuratu nahi dira. Honek dio, gizabanakoaren garapen globalerako eta eskola eta ingurune pertsonalean etorkizuneko arazoak ekiditeko, hezkuntza motorren garrantzia kontuan hartuta, ezinbestekoa dela Haur Hezkuntzako zentro guztietan ezagutza duen pertsona baten egona, psikomotrizitate programa bat burutzeko gai dena, haurren garapen pertsonala eraikitzen laguntzen duena.

Orain arte aztertu den guztia eta profesional askoren esperientzia dela eta, badakigu psikomotrizitatearen garapena hainbat onura ekartzen duela, batez ere umearen garapen globalean haur hezkuntzako etapan, hurrengo puntuan ikusiko dugun bezala.

### Psikomotrizitatearen Onurak Haur Hezkuntzan

Psikomotrizitatearen ibilbidea laburra izan arren, haur hezkuntzako etapan garrantzi handiko praktika bilakatzen ari da, praktika bera dakarren onurek umeen garapen egokia bermatzen dutelako. Hori dela eta, hurrengo lerroetan, motrizitatearen praktika onen onurak ikusiko ditugu.

Hasi baino lehen, eta psikomotrizitateak duen garrantziaz kontzientziatzeko, Camargosen eta Macielen (2016) lanetik Le Boulch-en (1985) esaldi bat aipatu nahi da, psikomotrizitatea praktika bezala umeen garapenean duen eragina ikusteko: "garapen motorren %75a haur hezkuntzako etapan gertatzen da eta eremu honen funtzionamendu (psikomotrizitatea) egokia beste eremuko arloen ikaste prozesua erraztuko du". Honek bidea pixka bat erakusten digu, baina onurak zeintzuk diren jakiteko ondorengo lerroei erreparatu.

Haurren hainbat jardueretan psikomotrizitatea presente dago eta horrek bere gorputza ezagutzea eta menderatzea laguntzen du; baita haurren garapen globala

eta uniformea lortzeko ezinbesteko metodoa da, mundua arakatzeko nahitaezko praktika. Camargosek eta Macielek (2016) diotenez, psikomotrizitatea gizabanako batek egiten duen ekintza da; psikearen eta mugimenduen arteko elkarreragina, non garapen global bat bilatzen den alderdi afektibo, kognitibo eta motrizetan oinarritzen dena, norbanakoa bere gorputzaren kontzientzia mugimenduaren bitartez hartzen dihoana.

Henri Wallonen obrarik ezagunetarikoa, “*Del acto al pensamiento*” (1978), umearen garapen psikologikorako mugimenduaren garrantzia erakusten du. Bizitzako lehen urteetan gorputzarekin eta gorputzaren bitartez izandako esperientziak, hau da, haurren esperientziak mugimenduekin eta hurarekin izandako elkarekintzekin, funtsezkoak dira haurren nortasuna eraikitzeko. H. Wallonek dio gizakiaren garapena mugimenduekin eta ekintzarekin lotuta dagoela eta hortik pentsamendura iristen dela. Era berean, J. Piagetek (1975) ere dio umea gorputz-jardueraren bitartez pentsamendu eskema ezberdinak garatzen dituela, eta adimen hori jarduera motorretatik eraikitzen dela.

Psikomotrizitatea funtsezkoa da haurren nortasunean eragiten duten alderdiak garatzeko, hala nola, kognitiboa, afektiboa, soziala eta motorra. Gainera, Gutiérrezen (2009) esanetan, irakur-idazmenari, topologiari edo grafomotrizitateari buruzko trebetasunak eskuratzen lagunduko die. Praktika honen bitartez lortzen duguna umea bere gorputza ezagutzea eta bere gorputzarekin mundua ezagutzeko aukera izatea. Hori dela eta, etapa honetan jolasak, abestiak eta ipuinak oso garrantzitsuak dira, batik bat, umearen kapazitate kognitiboa jolasarekin garatzen delako, haurrak errealitatearekin zuzenean harremanetan jartzen direnean eta proposatutako hainbat proposamenen erantzunak bilatzen dutenean.

Era berean, Garciak eta Fernandezek (1994), Berruezok (1995) eta Muniainek (1997) bat etortzen dira psikomotrizitatea gizakiaren garapen motorrean, espresiboan eta sormenean eragiten duen teknika edo bide multzo bat dela esaterakoan, eta haur hezkuntzako etapetan gorputz jarduera eta bere adierazpen sinbolikoa erabiliz gizabanako independenteak lortzen direla, haurtzaroan guztiz garatzeko aukera izan ez duten beste pertsona batzuek baino.

Ikusi dugun bezala, bizitzaren lehen urteetan, haurren hezkuntza psikomotorra da, motrizitate trebetasun ezberdinak garapen motorren, afektiboaren eta intelektualaren oinarria delako eta mugimenduaren bidez haurrek sentimenduak adierazten dute, mundua moldatuz eta egokituz, baita besteekin erlazionatuz ere.

Beste alde batetik, psikomotrizitatearen praktika eskasa edukitzeak umeengan zenbait arazo edo atzerapen ekar litzake, Gutierrezen (2009) arabera, adibidez, xeheetasun txikiak dituzten letrak, zenbakiak edo esanahiak bereizteko zailtasunak dituzte, adibidez "b" eta "p"; "n" eta "u"; "12" eta "21"; eskuin eta ezker; gora eta behera; aurretik eta ondoren. Edo denborazkotasun egituran zailtasuna duten umeek denbora tarteak ez dituzte sumatzen, ez dute aurretik eta ondoren terminoak ulertzen, jarduera bat burututakoan ez daki zenbat denbora igaro duen bertan, etab.

Betidanik, mugimenduak gu gizaki bezala funtzionatzea lagundu digu, besteekin erlazionatuz eta inguratzen gaituen gauzei erreakzionatuz. Gizakiak gizartean bizirauteko eta funtzionatzeko modu eraginkorrean mugitzen ikasi behar dugu, horregaitik, haurrentzat nagusiki, mugimendua bizirauteko eta beharrak eta desioak asetzeko garrantzitsua da, baita, esploraziorako eta aurkikuntzarako, kontrolerako eta orekarako, adierazpenerako eta jolaserako, etab.

Zentzu honetan, irakasleak argi eduki behar du haurrak mugimenduaren bidez ingurumenean eragiten duela, hori dela eta, garrantzitsua da garapen motorren eta haren faseak ezagutzea eta ulertzea, jarduera koherenteak eta justifikatuak proposatuz, horrek umei jolastea, esploratzea, sortzea, sentitzea eta ikastea ekarriko dielako.

### *Jolasaren garrantzia*

Psikomotrizitatearen onurak hainbat direla ikusi ditugu, baina behin eta berriz jarduera motor gisa **jolasa** hitza ageri da umearen garapen kognitiboa, soziala eta motorra egokia izan dadin. Hori dela eta, hurrengo lerroetan, etapa honetan jolasa zergaitik den garrantzitsua azalduko da.

Hainbat autoreen hitzetan, ondoren ikusiko dugun moduan, jolasa haurraren garapenerako oinarritzko jarduera da, ingurunearekin hartu-emanetan jartzeko baliabidea delako. Iñaki Larreak (2013) Hik Hasin aldizkarian jolasaren garrantziaz mintzo da eta azaltzen du, jolasaren bitartez, haurrak aukera daukala bere burua zein ingurua, fisikoa zein soziala, ezagutzeko. Gainera, haurrak munduarekin topo egiten dutela eta haien sentipenak, usteak eta interpretazioak agerian uzteko balio duela. Larreak baita ere dio, jolasak balio dezakeela haurraren munduaren ikuskera azaleratzeko.

Azken finean, jolasa ikasteko modurik naturalena eta umearen lehen sormen jarduera da, jolasean sortzen eta garatzen duen irudimena bere



sormena areagotzen laguntzen duelako. Horregaitik Gil Madronak, Contrerasek eta Gomezek (2008) diote, ikaskuntza-egoerak elementu ludikoekin integratu behar direla, ikaskizuna esanguratsua izan daiten.

Beste autore batzuk jolasaren garrantziaz ere berba egin dute, hala nola, Zúgaro (1992) non jolasa haurraren sozializazioan funtsezko elementu gisa hartzen duen edo aski ezaguna den Piageten (1986) arabera, jolasa sormen irudimenaren eta lan konstruktiboaren artean trantsizio aukera guztiak biltzen dituen akzioa dela, jolasaren eta lanaren artean haurraren jarraipena finkatuz.

Gil Madronak et al. (2008) jolasa nortasunaren garapen sozialean eta afektiboan laguntzen duela diote eta jarrerak, balioak eta arauak eskuratzen sustatzen duela. Baita, gorputzeko gaitasunak eskuratzeko bitarteko egokia dela, hala nola, entzumen pertzepzioetan, orientazio espazialean, forma espazialen pertzepzioetan, gorputz adierazpenetan, motrizitate finean, etab.

Bere bizitzako lehenengo uneetatik, umeek mugimenduaren bidez ingurumenaren estimuluei erantzuten diete. Hori dela eta, jolasa psikomotrizitatean funtsezkoa da, umeek jolasarekin ingurunearekin zein beste pertsonekin erlazionatzen direlako. Jolasa lorpen motorrak eskuratzeko bide nagusia izango da ere, bertan, ekintzak, pentsamenduak eta hizkuntza, sinboloak eta arauak, etab. batzen direlako (Bruner 1979, Gil Madronak et al. aipatua, 2008).

Hori kontuan edukita, ondorengo lerroetan eta Vayerren (1977) eskutik, Rubianok aipatua (1997), jolasa haurraren garapen eraginkorrari eragiten dioten onurak aipatuko dira:

- Jolasaren bitartez plazerra aurkitzeko aukera.
- Nortasuna adierazteko unea.
- Sentimenduak adierazteko askatasuna: poza, tristura, haserrea, etab.
- Jolasak normalean egoten diren espazio zein denborazko egoera desberdin batean jar ditzake haurra.
- Beste pertsona batzuekin harremanak errazago ezarriko dira.

- Jolas desberdinetara jolasterako orduan bere gorputz-eskema integratzeaz gain, haurra bere motrizitate ahalmenak eta besteen ahalmenei buruz jabetzen da.
- Modu integralean funtzio garrantzitsuak eraikitzeko aukera ematen dio, hala nola, tonua, oreka, lateralitatea eta portaera pertzetibo-motorrak, baita, ingurune fisiko eta soziala ezagutzera eta hartara egokitzera.

Horren bitartez, haurrek ohiturazko mugimendu gehienak garatzen joango dira, hala nola, bultza eta erakartzea, esertzea eta zutitzea, gauzak jasotzea eta altxatzea, lasterketa egitea, etab. Horrek garapen motorraren oinarri bat eraikiko du, autokontrola, gorputzaren mugimenduak menderatuz eta espazio-denborako harremanak lortuz (Rubiano, 1997) eta, bestetik, eskolaren oinarrizko ikasketei aurre egiten lagunduko die, hala nola, irakurketan, idazketan, matematikan, etab. (Gutierrez, 2009).

Azken finean, haurrari jolasak garapen motorrean lagundu eta esperientzia zehatzak eskainiko dizkio, kanpo mundua esploratzeko eta garapen intelektualaren oinarrizko nozioak eraiki ahal izateko. Esplorazioei esker umeak norberaren eta kanpoko munduaren kontzientzia garatzen joango da eta bertan mugitzeko eta ezagutzeko aukera guztiak izango ditu, pixkanaka bere independentzia lortuz eta harreman sozialak eraikiz.

## Jarduera Motorrak Haur Hezkuntzan

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan egindako proposamen motorrak haurraren osotasuna eratzen duten pertzepzio-, motor-, motor-fisiko- eta afektu-harreman-faktoreen garapen edo hobekuntza orokorrari zuzenduta daude (Gil Madrona et al., 2008). Hori dela eta, garrantzitsua da psikomotrizitate saio bateko jarduera motorrak umearen garapen osoa ahalbidetzea, haurraren nortasunaren alderdien garapen harmonikoa eta orekatua izateko.

Helburu horietan, lehen esan bezala, jarduera motor bakoitzak haurraren nortasun orokorra kontuan hartu behar du, beraz, espazioak diseinatu eta egokitu behar dira proposatzen diren jarduera motorren arabera, taula honetan ikusiko ditugun helburak kontuan hartuz (Taula 2an ikusi daitekeen modura):

**Taula 3: Gil Madrona et al., 2008. Justificación de la educación física en la educación infantil.**

Jarduera motorrak egiterakoan kontuan hartu beharrekoak	
<b>Umeen nortasuna eta beraien baieztapena eraikitzea</b>	Autoestimua, jarrera eta jokaera positiboak, ingurune fisiko eta sozialarekiko harreman onak, eta sozializazioa garatzea.
<b>Gorputzaren kontrola eta domeinua eskuratzea</b>	Jolasak eta mugimendu naturalak gauzatzea, koordinazioa eta oreka hobetzea, baldintza fisikoaren garapena, eta portaera motorra aberastu eta gorputzaren eraginkortasuna lortu.
<b>Norberaren gorputza eta kanpoko errealitatea hautematea</b>	Jasotako sentsazioen antolaketa eta egituraketa, gaitasunak eskuratzea eta ezagutzak eraiki, adierazpena, komunikazioa eta errepresentazioa garatzea eta bere ingurune fisiko eta sozialean moldatzea.

Kontuan izan behar dugu espazio bakoitza baldintza eta material egokiekin hornitu daitekeela zenbait portaera lortzeko (Gil Madrona et al., 2008) eta psikomotrizista bezala taulan ikusi diren premia horiek guztiak asetu behar dira, hezkuntza-dinamika desberdinak ezarriz. Baina ez soilik garapen motorraren eremuko alderdiak lantzeko, kognitiboak, afektiboak eta erlazio sozialak ere, espazioen eta materialen ezaugarriak aprobetxatuz. Hori dela eta, espazioa eta materialak nola antolatzen diren arabera portaera espezifikoaren agerpena hobetu daiteke.

Hortaz, ikaskuntza inguruneen manipulazioa espazioen eta materialen antolaketaren bidez haurrak jokabide motor espezifikoetara inplikatzeko ekar ditzake, ezarritako helburuei erantzuten dietenak. Era berean, ekintza ezberdinak, esperimenduzkoak, jolasak eta haurren arteko elkarrekintzak ingurune lasai eta maitekorretan, hazkunde pertsonala gerta dadin funtsezko baliabideak dira. (Mendiara, 1999).

Ezin dugu ahaztu umearen arropak nortasun pertsonala lantzeko. Gil Madronak et al. (2008) diotenez, umeen arropak erabiliko dira autonomia lantzeko, hala nola, arropak jantzi eta erantzterako unean, botoiak lotu eta askatzerakoan, kremailerak igo eta jeisterakoan, edo koloreak eta ehundurak landuz.

Bestetik, psikomotrizitate gelak ahalbidetzen badu, interesgarria izango litzateke esekitako materialak edukitzea, adibidez, sokak, sokazko eskailerak, barrak,

espalderak, etab. birak, erreflexuak altuera batetik jausterakoan, jarrera tonikoaren kontrola, oreka, koordinazio dinamiko orokorra eta koordinazioa bisomotorra<sup>2</sup> garatzea ahalbidetuko dutenak (Gil Madrona, González, Contreras eta Gómez, 2008). Beste material batzuk ere behar dira, hala nola, puzzleak, pilotak, uztaiak, baloiak, banku suediarak, oihalak, etab.; kolore, forma eta ehunduraren arabera, gorputzaren lanerako balio eta martxan, katamarkan, eskalatzen, orientazio eta espazio egituraketan, mugimenduen koordinazioan, orekan, tonuan, jarreran, erlaxazioan, arnasketan, etab. hobetzen lagunduko dutenak. (Mendiara, 1999).

Beraz, ikus dezakegu jarduera motorretan erabil ditzakegun hainbat material daudela, eta haien aukeraketa egingo ditugun jarduera motekin, erabilitako metodologiarekin eta helburuekin edo programatutako edukiekin lotuta egongo da. Orduan, ekintza-proposamenak irakaslearen sormenaren, zentroaren baliabideen eta material horien antolaketaren eta banaketaren arabera izango dira.

Nagusiki, Pradillok (2002 eta 2007) eta Mendiarak (1999) haien lanetan antzeko gauzak diote jarduera motorrak nola planifikatze aldera. Beraiek diote, ingurune motorrak planteatzen dituzten jarduerak proposatu behar direla, haurrak sormen askatasunean jolasteko, non irakasleak animatzaile gisa jokatu duen. Horretarako, haien aburuz, esplorazio eta aurkikuntzarako egoera motordun irekiak proposatu behar dira, haurren interpretazio pertsonalerako kontsigna irekiak, beharrezkoak diren erdi-definitutako lanak, eta joko proposamenak aurkeztuz. Helburua da jokabide sentsorimotorrak estimulatzea, motor trebetasunak hobetzea, osagai kognitiboak eta eskuratutako zereginak hobetzea eta erlazio eta afektu portaerak ahalbidetzea.

Mendiarak (1997) bere doktore-tesian ingurune motorren garrantziaz berba egiten du, esperimentu bat sortuz. Bertan, "Ekintza eta Abentura Espazioak" deituriko ingurune motor bat planteatzen du bost joku gune ezberdinekin. Berak "Ekintza eta Abentura Espazioak" prozedura didaktiko gisa definitzen du (haurraren ikaskuntza eta garapen globala bideratzen duena) ingurumenaren inguruko manipulazio pedagogikoan zentratua. Eskolako gimnasioan izaten diren objektu eta gailu ezberdinen bidez ambiente bat planteatzen du, umeei haien gorputza ezagutzeko eta era global batean inplikatzeko aukera izan ditzaten. Horrekin, haurraren unitate globalaren osagai nagusiak landuko ditu: faktore fisiko-motorrak, pertzepzio motorrak eta faktore afektu-erlazionalak.

---

<sup>2</sup> Ikusmena eta gorputzaren mugimenduak koordinatzeko gaitasuna. Umeentzat funtsezkoa da gaitasuna hau garatzea, irakurketa-idazketaren oinarrian baitago.

“Ekintza eta Abentura Espazioaren” bidez zenbait onura bereizten ditu Mendiarak (1997) bere doktore-tesian: Ekintza (lehen joko batetik egituratutako jokoak) eta Abentura (fantasiaren balio hezitzailea).

Ekintzaren fasean, umeei haien jokoak egituratzeko prozesuan, "Ekintza eta Abentura Espazioetan" egiten dutena bere unea bizitzea da. Horrek mugitzeko lehen plazerretik egitera bultzatzen du haurra eta, beraz, jarduteko asmoa gertatzen da. Ondoren, funtzio sinbolikoa agertzen da. Urrats horretan, espazio ezberdinen bitartez, haurrek haien jardura psikiko sekretuena adierazten dute. Fase aberatsa eta bizia dela dio Mendiarak, oinarrizkoaren eta pertzepzioaren artean kokatua, non pentsamendua haurrek egiten dutenaren arabera garatzen den. Modu honetan ume bakoitzak norberaren ikaskuntza eta nortasuna garatzen ditu.

Bestetik, abentura fasearen bitartez, Mendiarak zera dio: “Gure "Ekintza eta Abentura Espazioetan" umeei estimulatzen duten gauzetako bat fantasia da. Horren bitartez liluragarriak diren munduak sortzen dituzte, beraientzat zoragarriak direnak. Irudimenaren bidez, umeei barne errealitatea kanpoko errealitatearekin lotzen dute, hori dela eta, "Ekintza eta Abentura Espazioetan" haurrak, heroiak izatera jolastu, idealak eta mitoak adieraztea, pertsona ospetsuen izenean jardutea, etab. eta horrek haurrak arrakasta handia izatera bideratzen du, baliotsua sentitzen da, beraien buruaz harro egotea, eta besteekin harreman atseginak lortzen dituzte”. Ingurune horien bitartez, Mendiarak dioenez, umeei ez dute soilik gaitasun fisikoak (buruko trebetasunak) eta mentalak (prozesu kognitiboak) garatzen, baita afektiboak eta sozialak ere, hala nola beldurrak gainditzea, bulkadak kontrolatzea, autonomia lortzea, ados jartzea, laguntzea, laburbilduz, pertsona fisiko eta sozial gisa haztea.

Azken finean, eduki horiek lantzearen xedea eduki psikomotorren bidez ikaslearen jokabide-eremu guztietan eragina izatea da, gizaki gisa hezkuntza integratuz eta globalean hobetzen laguntzeko, zenbait eduki eskuratzeari begira.

### **Psikomotrizistaren Rola eta Esku-Hartzea**

Jarduera edo ekintza profesional guztiek helburu batzuk ezarri behar dituzte; esku-hartze psikomotorren xedea, jardura eta mugimenduaren bidez, gizabanakoaren integrazioa bere ingurunean sustatzea edo berrezartzea da (Berruezo, 1995 eta 2000b). Bestetik, Berruezok (2001) dio, esku-hartze psikomotorren helburua gorputzaren alderdi komunikatiboa garatzea dela, pertsonari beraien gorputza kudeatzeko aukera emateko, bere energia behar bezala erabiltzeko, beraien keinuak modu eraginkorrean kontrolatzeko, oreka hobetzeko, gorputzaren bitartez adimena

lantzeko etab. Beste era batera esanda, esku-hartze psikomotorren helburua pertsona bakoitzak bere ingurunera egokitzea (familia, eskola, gizarte) eta bere nortasuna garatzea da, bere gorputzaren ezagutzatik eta domeinutik hasita, kanpo munduarekin komunikatzeko eta trukatzeko aukerak ematen dira.

Horregaitik, psikomotrizistaren rola eta betebeharrak, psikomotrizitate saio bat aurrera eramateko eta umeen garapen integrala lortzeko, Gil Madronaren et al. (2008) arabera, ondorengoak izan behar dira: saio bakoitzaren lana haurren heldutasunari eta ikasteko prozesuei egokitzea; gizarte dimentsioko jokoetan garapena erraztea, objektu, espazio eta denbora munduarekin duen harremana arinduz, non irakaslea animatzailea izango den saioak modu egokian planifikatuz eta prestatuz, saio bakoitzean proposatutako helburu, eduki eta jarduera zehatzak proposatuz; jarduera sustatzen duten espazio egituratuak zentroan proposatzea, egon daitezkeen objektu eta gailu ezberdinekin egindako egitura edo espazio naturalak eraikiz; segurtasuna eskaintzea, eta jarduera dinamikoak garatzea; ekintza batzuk jokoan sartuz edo joko goerak edo muntaiak aldatuz gidatzea.

Lehen aipaturiko helburuak lortzeko psikomotrizistek tresna batzuk dituzte; Berruezok (2001) horrela sailkatzen ditu:

- Psikomotrizitate gela: Espazio bat non baliabide ezberdinekin batera adierazpen pertsonala eta eboluzioa ahalbidetzen duten saioak garatzen diren.
- Psikomotrizitate saioa: Esku-hartze momentuak egituratzeko unea, progresio zentzua izan behar duena.
- Psikomotrizitatearen oreka: Funtzio eta faktore psikomotorren azterketa, heltze maila eta pertsonen gabeziak ezartzen dituen.
- Behaketa psikomotorra: Esku-hartze prozesuaren azterketa tresna.
- Gorputzaren bitartekaritza: lan proposamenak (motorra, erlaxazioa, jolasak, etab.).

Psikomotrizitatean erabiltzen den metodologia aipatzerakoan, esan genezake psikomotrizitatearen esku-hartzea arlo prebentiboan, hezkuntza arloan, berreziketa arloan edo arlo terapeutikoan egin daitekeenez, egoera oso ezberdinak sortuko direla (Berruezo, 2001). Ekintza arlo bakoitzean, psikomotrizistek metodologia mekanikoa

(funtzionala edo zuzena) edo bizipenezkoa (librea edo ez zuzentzailea) aukeratu dezakete; ulertzen da muturreko bi puntu hauen artean ekintza-bitarteko aukera guztiak eman daitezkeela (Berruezo, 2000b).

Berruezoren lanari tiraka (2000b), honek dio esku-hartze psikomotorraren prozesuak bi ibilbide posible jarrai ditzakeela: ikuspegi klinikoarena, garapen-eskema ondorengoa izango litzatekeena: diagnostikoa, tratamendua, jarraipena eta zailtasunak gainditzea; edo ikuspegi pedagogikoarena, sekuentzia ondorengoa izanik: programazioa, esku-hartzea, ebaluazioa eta ikaskuntza eskuratzea.

Arnaizek eta Lozanok (1996) eta Berruezok (2000b) bat etortzen dira diotenean interbentzioan kontuan hartu beharreko parametro batzuk daudela psikomotrizitatearen jarduera (hezkuntza edo terapeutikoa) aztertzeko funtsezko elementuak direnak:

- Mugimendua: Trebetasunak edo baldartasunak kontuan hartu behar dira, ekintzen koordinazioa eta bereizketa, lekualdaketen kalitatea, tonua, mugimenduaren esperientzia atsegina edo desatsegina, etab.
- Espazioa: Interes ezberdinak espazioaren erabilera eta antolaketa zuzenduko ditu, baita espazio pertsonalak edo partekatuak eraikitze aldera ere.
- Denbora: Esperientziaren, mugimenduaren, ekintzaren eta harremanaren iraupena da. Jardueren sekuentziarekin eta iraupenaren kontzeptuarekin (material baten erabileraren denbora) lan egiteko gaitasunak denbora kontrolatzen lagunduko dio.
- Objektuak: Objektuekiko harremanak motor trebetasunak, afektibitatea eta pentsamenduak biltzen ditu. Objektuak oso ezberdinak izan daitezke: esploraziorako, erabilera sinbolikorako, irudikapenerako, harremanen bitartekaritzarako, etab.
- Besteak: Besteekiko hartu-emanak (umeen artean edo helduekin), imitazioa, komunikazioa, euren ekintzen edo ekoizpenen errespetua etan.

## HELBURUAK

---

### Helburu Nagusia

Durangaldean kokatuta dauden zenbait eskoletako psikomotrizitatearen egoera aztertzea, bertako irakasleei haien egoerei, jarduera motorrei eta formakuntzei buruz galdetuta.

### Azpi-Helburuak

- ❖ Jarduera motorrak praktikan jartzeko maisu-maistrek erabiltzen dituzten ezaugarri nagusiak aztertzea.
- ❖ Gaur egungo psikomotrizistek psikomotrizitatearen egoerari buruz duten iritzia ezagutzea.
- ❖ Psikomotrizista lanetan gaur egungo maisu-maistrek jarduera motorrak aurrera eramateko duten gaitasuna aztertzea (formakuntzak, norberaren kapazitatea, etab.).



## METODOLOGIA

---

Ikerketa honetarako datuak eta informazioa jasotzeko asmotan galdetegi gidoi bat prestatu egin da, ondoren Durangaldean kokatuta dauden zenbait eskoletako irakasleei helarazteko. Ondorengo lerroetan erabilitako metodologiaren azterketa zehatzagoa egingo da.

### Galdetegiaren Justifikazioa eta Diseinua

Irakasleen arabera edo ikasketak non eta noiz burutu duten kontuan hartzen badugu, psikomotrizitatea modu ezberdinean irakatsi daitekeen praktika bihurtzen da. Ikuspegi horiek kontuan hartuta, psikomotrizitatearen egungo egoerari buruzko galdetegi honek irakasleen berezitasunak eta ezaugarriak azaltzen ditu. Hori dela eta, xehetasun horiek sakon aztertu ahal izateko eta haietan barneratzen diren konplexutasun guztiak kontuan hartzeko, psikomotrizitatearen egoera eta erabiltzen dituzten jarduerak aztertzeko, metodologia mistoa aukeratu da informazioa biltzeko metodo moduan. Galdetegi honen galderak, alde batetik, kuantitatiboak izango dira, irakaslearen profila eta praktika psikomotorren ezaugarriak ezagutzeko asmoz, eta bestetik, kualitatiboak, irakasleek praktikan jartzen dituzten jarduera motorren ezaugarri nagusiak eta irakasleen egoeraz hausnartzeko asmoz.

Hala ere, ikerketa honen helburuetarako, funtsezkoa da metodologia kualitatiboak eta kuantitatiboak bereiztea. Alde batetik, Thomas eta Nelsonen (2007) definitzen dutenaren arabera, metodo kualitatiboek kalitateak aipatzen dituen teknika edo ikerketa metodo bat da. Metodo honek gertaerak, pertsonak, egoerak, portaerak, elkarrekintzak, etab. zehaztasunez deskribatzen ditu azterketa baten bidez. Parte-hartzaileen esperientziak, pentsamenduak, jarrerak, sinesmenak, etab. agerian uzten dituen esperientziak gehitzen ditu. Metodo kualitatiboan, normalean, zergatik? zer? nola? zertarako? galderak egiten dira gauzen esanahia bilatzeko asmoz.

Bestetik, metodo kuantitatiboak, Thomas eta Nelsonen (2007) hitzak kontuan hartuta, ikertzeko, aztertzeko eta informazioa eta datuak egiaztatzeko zenbakietan oinarritzen den metodoa da. Erlazio bat zehazten eta mugatzen du, aldagaien indarrez gain, biztanleria bat ateratzeko lortutako emaitzak orokortzen eta objektibatzen ditu. Horretarako, bilketa metodikoa eta ordenatua behar da, metodologia honek dituen zenbakizko emaitza guztiak aztertzeko. Metodo kuantitatiboek balio kuantifikagarriak erabiltzen dituzte, hala nola, ehunekoak, magnitudeak, tasak, etab. Esan daiteke,

orduan, ikerketa kuantitatiboan galdera zehatzak egiten direla eta inkestetan islatzen diren parte-hartzaile bakoitzaren erantzunak zenbakizko laginak direla.

### Erabilitako Tresnak

Galdetegi bat eraiki da Morenoren, Lópezen, Gutiérrezen, Cascadaren eta Fernándezen (2004) testuan oinarrituta, psikomotrizitatearen egoera Durangaldean zein den eta horietan erabiltzen diren jarduerak aztertzeko. Galdetegia, lehen esan bezela, mistoa izango da, datu kuantitiboak eta kualitatiboak jasotzeko egina, profesionalen biografia, haien egunerokotasuna, kezkak, formazioa, iritziak, etab. jasotzeko asmoz.

### Kategorien Definizioa

Galdetegiko itemak kategoria ezberdinetan ordenatu dira, ondoren lortutako emaitzen analisi deskriptiboa egiteko asmoz, hau da, galderak modu ordenatuan taldekatu eta errepresentatuko dira, emaitzen alderdi bereizgarriak azkar identifikatzen lagunduz. Galdetegiaren kategoriak hauek izango dira:

- Irakasleen profila
- Praktika psikomotorren ezaugarriak
- Irakasleek praktikan jartzen dituzten jarduera motorren ezaugarri nagusiak
- Psikomotrizitatearen egoerari buruz duten iritzia
- Jarduera motorrak aurrera eramateko kapazitatea ezagutzen

Aipatzekoa da, galdetegiaren lehenengo bi dimentsioak analisi kuantitatibo baten bidez jasoko direla, emaitzak portzentaietan jasoz. Bestetik, aldiz, bigarren puntu horretatik aurrera galderak kualitatiboak izango dira, inkestatuen iritzi sakonak eta haien esperientziak eskuratuz.

### Lagina

Durangaldeko psikomotrizitatearen egoera zein den eta psikomotrizisten jarduerak umeen garapen integralerako zeintzuk diren aztertzeko hainbat eskoletatik

pasa eta galdetegi bat luzatu zaie. Guztira Durangaldeko 6 ikastetxeei pasa zaie inkesta. Ikastetxeak Durangoko Nevers, Landako (bi irakasleei), Jesuitak eta Kurutziaga Ikastetxeak, Iurretako Maitzegi Ikastola eta Matienako Herri Eskola izan dira -aipatzekoa da Kurutziaga ikastolakoek ez diotela galdetegi honi erantzun eta Durangon kokatuta dagoen Zabalarra ikastetxe publikora jo behar izan dela-. Bestetik, printzipioz, eskola bakoitzeko bi irakasleei pasatzea zen helburua, baina ezinezkoa egin denez, Landako eskolan izan ezik, irakasle bati pasa zaio galdetegia. Guztira 7 irakasle izan dira inkestatuak eta handik atera dira emaitza guztiak.

Galdetegia bi zatitan osatuta dago. Alde batetik, 1. atala 12 galderaz osatuta egongo da eta irakaslearen testuingurua eta haren datu biografikoak batzen dituen galdera sortak dira. Bestetik, 2. atala, 28 galderaz osatuta dagoen galdetegia izango da, BAI edo EZ erantzutea eta haren zergaitia eskatzen dituen galderak dira. Galdera hauek psikomotrizitatearen egoeraz, umearen garapen globalerako garrantziaz eta psikomotrizisten formakuntzaren inguruan dihardute.

Bestetik, eranskinetan ikusgai izango diren lagin guztiak lanaren siglekin sailkatuta daude, hau da, PEGE (Psikomotrizitatearen Egoera Gaur Egun) siglekin akotatuta egongo dira eta galdetegi lagin bakoitza (zazpi totalean) zenbaki batez egongo da identifikatuta (PEGE-I; PEGE-II; PEGE-III; (...); PEGE-VII), errezago aurkitu daitezten.

Bukatzeko, lanaren siglak eta lagin bakoitzaren zenbakia eta gero, emaitzak ahotsen bitartez justifikatze aldera (metodo kualitatiboaren bidez egindako kategoriak eta haren galderak soilik daude zerrendatuta), irakurlea hobeto kokatzeko, kategoriak eta kategoria horien galderak zerrendatu dira. Zerrenda horrela geratu da: *irakasleek praktikan jartzen dituzten jarduera motorren ezaugarri nagusien* kategoria 1 zenbakia izango du eta haren 16 galderek zenbaki hauekin egongo dira sailkatuta: 1.1, 1.2, 1.3, (...), 1.16. *Psikomotrizitatearen egoerari buruz duten iritziaren* kategoria izango du 2 zenbakia, haren 8 galderek honela aurkituko dira: 2.1, 2.2, 2.3, (...), 2.8. Galdetegiaren azken kategoria, 3. zenbakia izango du *jarduera motorrak aurrera eramateko kapazitatea ezagutzen* deiturikoa eta 5 galdera horiek honela banatuta egongo dira: 3.1, 3.2, 3.3, 3.4 eta 3.5.

## Prozedura

Galdetegiaren gidoia egin ostean praktikako egonaldia eta zenbait kontaktu aprobetxatu dira hainbat irakasleei galdetegi hau helarazteko. Irakasleei galdetegia e-

mailez igorri zaie eta galdera sorta hasi bezain pronto sarreratxo bat egin da lan honen beharrak eta helburuak adierazteko.

Datuak jasotzerako unean, alde batetik, galdetegiaren lehenengo atala era kuantitaboan egin denez, galdera bakoitzetik datu guztiak pilatu eta portzentaiak atera dira. Bigarren atala, aldiz, metodo kualitatiboa erabili denez, beste motatako galderak izan dira. Irakasleen erantzunetan norberaren bizipenak eragin handia izan dute eta pertsona guztiak berdinak ez direnez haien erantzunak ere ez dira izan berdinak, horretarako emandako erantzun ezberdinak sailkatu eta era objetibo batean idatzi egin dira, ahotsak baliatuz narrazio hori justifikatzeko, zitak aurreko atalean azaldu den moduan jarriz.

## EMAITZAK


Atal honetan, galdetegiaren emaitzak zeintzuk diren jasoko dira.

Aurreko atalean ikusi den modura, galdetegiko itemak kategoría ezberdinetan ordenatuta egongo dira. Hori kontuan edukita, eta behin zazpi galdetegi hauen erantzunak jasotakoan, lortutako emaitza garrantzitsuenak analisi deskriptibo baten bitartez transkribatuta eta kategoriaka ordenatuta egongo dira. Galdetegi guztiak Eranskinetan eskuragai daude (50. Orrian).

### Irakasleen Profila

Hasteko, esan beharra daukagu, genero aldetik galdetegi hau erantzun duten gehiengoak emakumeak direla. Soilik %14a gizonezkoak dira, emakumezkoen %86aren aurrean.

Psikomotrizista eran jarduteko posturik ezta titulu ofizialik ez dagoenez, galdetegi hau erantzun dutenek gradu ezberdinak dituzte, batzuk titulazio bat baino gehiago izanik. Galdetegia bete duten gehiengoek, %57a, Haur Hezkuntzako titulua daukate; %29a, aldiz, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gradua; eta, bada, inkestatuen zati bat, %14a, Lehen Hezkuntzako eta Psikopedagogiako titulua dutenak (ikusi 1. Grafikoa).




1. Grafikoa: Irakasleen titulazioa

Inkestatuen adinari dagokionez, %43a 22-35 urte tartean daude, 36-50 urte tartean %14a eta 51 urte baino gehiagoko adinean %43a.

Galdetegia erantzun duten gehiengoak eskola publiko batean lan egiten dute, %57a izanik. Aldiz, %43ak itunpeko eskola batean lan egiten dute.


Bukatzeko, gure maisu-maistrei esperientzia urteei buruz galdetu zaienean, %43k 10 urte baino gutxiagoko esperientzia urteak dituztela erantzun digute, 10 urte baino gehiagoko esperientzia urteen %57aren aurrean (ikusi 2. Grafikoa).



2. Grafikoa: Esperientzia Urteak

### Praktika Psikomotorren Ezaugarriak

Praktika hau garatzeko astean zenbat ordu ematen duten galdetutakoan, galdetegiaren erantzunen arabera, %14ak ordu bateko saioa egiten dutela diote, %43k ordu bat eta erdi ematen dutela astero erantzun dute, %14ak bi ordu, eta, bukatzeko,%29ak hiru ordu, gutxi gorabehera, astero praktika honi eskeintzen diotela diote (ikusi 3. Grafikoa).




3. Grafikoa: Psikomotrizitateari eskeinitako denbora

Inkestatuen maisu-maistrek, gehienbat, bigarren zikloko umeekin lan egiten dute. Galdetegian ikusi dezakegunaren arabera, bigarren ziklokoko 3-4 urte tarteko umeekin %43a lan egiten dute, %14a 4-5 urtekoekin eta %29a 5-6 urte tarteko umeekin. Aldiz, lehenengo zikloko umeekin, 2-3 urte tartekoekin, %14a egiten du lan.

Bestetik, zenbat ikasle duten haien geletan galdetutakoan, maisu-maistren %43k hamabost ikasle baino gehiago dutela erantzun dute, beste %43k, hamabost ikasle baino gutxiago eta %14ak 15 ikasle zehatz dutela baieztatu dute.

Bukatzeko, arazorik garrantzitsuena jarduera motorrak lantzerakoan, maisu-maistren %72a formazioa dela arazorik garrantzitsuena esan dute. Bestetik, %14arekin instalazioak direla eta, amaitzeko, beste %14arekin ikasle kopurua dela arazorik garrantzitsuena jarduera motorrak aurrera eramateko (ikusi 4. Grafikoa).



4. Grafikoa: Psikomotrizitatea lantzeko arazoak

### Irakasleek Praktikan Jartzen Dituzten Jarduera Motorren Ezaugarri Nagusiak

Galdetegian pilatutako datu kulatititibo ezberdinen arabera, irakasleei ikerkuntzan oinarritutako jarduerak beraien saioetan ea nagusitzen diren galdetutakoan, gehienek ezetz esan dute, baina inkestatutako maisu-maistra batzuk baiezkoa eman dute:

“Bai nire klaseak ikerkuntzan oinarritutako jarduerak nagusitzen dira, umeak mugimendu eta ikerketaren bidez ikasten dutelako”. (PEGE-VI/1.1) (Ikus 4. eranskina)

Psikomotrizitate saioekin jarraituz, maisu-maistrek zer nolako jarduera motorrak proposatzen duten galdetzerakoan erantzun ezberdinak jaso dira. Irakasle gehienak

jolas librean uzten diete umeei, baina badaude irakasle batzuk jarduera edo metodo mota ezberdinak proposatzen dituztenak, adibidez, “nire klaseetan Aucouturierren praktika psikomotorra jarraitzen da. Aucouturier metodoa, saio ez zuzentzaile bat da, non haurrak eskuragarri duten materialekin askatasun osoz jolastu dezakeen, irakaslearen argibiderik jarraitu gabe” (PEGE-III/1.3) (Ikus 3. Eranskina), “batzuetan jolas kooperatibo batzuk egiten dira (...)” (PEGE-VI/1.3) (Ikus 6. Eranskina) edo “(...) zirkuituak ere.” (PEGE-VII/1.3) (Ikus 7. Eranskina) egiten direla azaldu digute.

Psikomotrizitate saio batean erabil daitezkeen hainbat material daude, eta haien aukeraketa egingo diren jarduera motekin, erabilitako metodologiarekin eta helburuekin edo programatutako edukiekin lotuta egongo da. Horregatik, galdetu zaie maisu-maistrei ea umeen garapenerako material espezifikoa erabiltzea garrantzitsutzat hartzen duten. Erantzun guztiak baiezkoak izan dira, material espezifikoa erabiltzen dutela “(...) beraien jakinmina bultzatzeko eta motibatuzeko” (PEGE-IV/1.7) (Ikus 4. Eranskina), baita “(...)inguruko materialak ere oso erabilgarriak dira.” (PEGE-I/1.7) (Ikus. 1. Eranskina) esan digu irakasle batek.

Bestetik, psikomotrizitate saio bat aurrera eramateko taldearen ezaugarriak ea kontuan hartzen duten galdetu egin da, eta ezezkorik ez da jaso. Erantzun guztiak diote taldearen ezaugarriak kontuan hartzen dutela, “(...) taldekatzeak egiterakoan (...)” (PEGE-II/1.9) (Ikus 2. Eranskina), “klaseak antolatzerako orduan” (PEGE-III/1.9) (Ikus 3. Eranskina) edo “taldearen arabera materialak, jarduerak, denborak, etab. aurreikusteko, gero taldearen erantzunaren arabera jarduerekin jarraitu edo aldatzeko” (PEGE-V/1.9) (Ikus 5. Eranskina).

Haurra ikasteko modurik naturalena jolasa izanik, haren garrantziaz galdetu egin da inkestatutako maisu-maistrei. Alde batetik, garrantzitsua dela beste arloak garatzen laguntzen dutelako argudiatu dute:

“(...)mugimendua orokorrean izaten da garrantzitsua. Mugimenduaren bidez arlo motorea trebatu egiten delako eta aurrerapen handiak lortzen direlako arlo fisikoan, sozialean eta psikologikoan ere bai.” (PEGE-VI/1.2) (Ikus 6. Eranskina).

Bestetik, haurren interesa suspertzeko, inguratzen dieten mundua ezagutzeko eta zenbait egoerei aurre egiteko garrantzitsua dela diote eta horrelako erantzunak topatu dira: “(...)jolas librearen bidez umeak ondo pasatzen du, baina horretaz gain gorputza eta inguratzen duen mundua ezagutzeko modu apropos bat dela deritzot” (PEGU-III/1.2) (Ikus 3. Eranskina) edo “Jolasaren bitartez umeak bere egoera afektiboa adierazten du eta hau bere motrizitatean isladatzen da. Jolasaren bidez bere



beldurrak, egoera afektiboak etab. adierazten ditu umeak, jolasak aurrera egiten lagunduko dio eta motrizitatea aurrerapen honekin lotuta dago.” (PEGE-V/1.2) (Ikus 5. Eranskina).

Haurren hainbat jardueretan psikomotrizitatea presente dago eta horrek bere gorputza ezagutzea eta menderatzea laguntzen du, hori dela eta, ea psikomotrizitateak zerikusirik ahal daukan arlo kognitibo, sozial eta emozionalarekin galdetu egin da. Baiezko erantzunak eman eta esan dute “(...) psikomotrizitatean atal guztiak martxan jartzen direla, kognitiboak, sozialak, emozionalak eta motoreak” (PEGE-I/1.6) (Ikus 1. Eranskina). Haratago ere joan dira zera azalduz:

“Psikomotrizitateak pertsona bere osotasunean hartzen du eta honen helburua izango da haurren garapen kognitibo, sozial eta emozionalean laguntzea. Horregatik psikomotrizitatearen helburuetako bat umeek esperientzia positibo eta esanguratsuak eskuratzea izango da. Gainera, irakasleok espazio eta ekintza aproposak antolatu beharko ditugu umeen autonomiaren garapenean laguntzeko. Izan ere, eguneroko ekintzak burutuz, pixkanaka-pixkanaka umeak bere gorputza ezagutuko du eta bere buruaren irudi positibo bat eraikiko du.” (PEGE-III/1.6) (Ikus 3. Eranskina).

Baita, beste arloetan arazoak daudenean psikomotrizitatean islatzen direla esan digute:

“Osotasun baten barruan lotuta daudelako arlo guztiak adibidez, arlo afektiboan edo intelektualean arazoak daudenean psikomotrizitatean islatzen dira (PEGE-V/1.6) (Ikus 5.eranskina).

Bukatzeko, ea haien helburuak lortzeko lehiaketak erabiltzen duten galdetutakoan, erabateko ezetzarekin aurkitu gara erantzun modura.

## Psikomotrizitatearen Egoerari Buruz Duten Iritzia

Psikomotrizitatearen egoerari buruz duten iritziaz jakiteko zenbait galdera egin dira. Ea haur hezkuntzako graduan ematen diren edukiak nahikoak diren psikomotrizitatea behar bezala irakasteko galdetu denean, jarduera motorrak aurrera eramateko arazorik garrantzitsuena erantzunean ikusi dugun bezala (formazioa dela arazorik garrantzitsuena haien aburuz), inkestatutako maisu-maistren gehiengoa graduetan ematen den formazioa psikomotrizitate saio bat aurrera eramateko ez dela nahikoa esan digute: “Ezin dut erantzun, aspaldian amaitu nituen nire ikasketak. Hala ere, ez ziren izan nahikoak.” (PEGE-I/2.1) (ikus 1. Eranskina) edo “Ez, ez dira nahikoak

(...). Orokorrena ikasten da, baina ez zara psikomotrizista izango soilik heziketa horrekin.” (PEGE-VII/2.1) (ikus 7. Eranskina). Beste alde batetik, badago irakasle bat psikomotrizitateari buruzko kurtso bat egin duena, gradutik aparte, eta saioak aurrera eramateko mesedegarria dela dio: “Nire kasuan psikomotrizitatearen inguruko kurtso bat ere egin nuen gaiaren inguruan gehiago jakiteko. Beraz, uste dut, lagungarria dela gehiago formatzea.” (PEGE-II/2.1) (Ikus 2. Eranskina)

Psikomotrizitate gelaren egoerari dagokionez, jardueren garapenerako ea egokitutako lekua egotea beharrezkoa den galdetu denean, “oso garrantzitsua (...)” (PEGE-IV/2.2) (Ikus 1. Eranskina) edo “derrigorrezkoa (...)” (PEGE-V/2.2) (Ikus 5. Eranskina) bezalako erantzunak jaso dira. Gehienek beharrezkoa dela egokitutako lekua diote: “Nire ustez material ugariz hornitutako psikomotrizitate gela handi bat izatea beharrezkoa da. Garrantzitsua da umeei espazio zabal bat izatea, bertan modu libre batean aritu izan ahal izateko.” (PEGE-III/2.2) (Ikus 3. Eranskina), baina badago irakasleren bat, bere esperientzian oinarrituta, ez duena egokitutako leku bat beharrezkotzat hartzen: “Eskola askotan ez dago egokitutako lekurik, beraz beharrezkoa dela ez nuke esango, baina asko laguntzen du leku bat izatea ikasleen garapenerako.” (PEGE-II/2.2) (Ikus 2. Eranskina).

Psikomotrizitatea gero eta garrantzi gehiago hartzen ari den praktika bat bihurtzen ari da, baina gaur egungo eskoletan ea gainerako alorrak baino garrantzi gutxiago daukan inkestatutako maisu-maistrei galdetu denengan, alde batetik, irakasle batzuk garrantzi gutxi ematen zaiola esaten dute: “Nire ustez, gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da. Hala ere, bai, garrantzi gutxiago ematen zaio. Nire ustez, beste alorrek bezain besteko garrantzia izan beharko luke” (PEGE-III/2.4) (Ikus 3. Eranskina) edo “Gutxiago dauka eta gehiago izan beharko luke.” (PEGE-IV/2.4) (Ikus 4. Eranskina). Baina, bestetik, maisu-maistren gehiengoak psikomotrizitatea haien eskoletan beste alorren bezain besteko garrantzia edo gehiago daukatela adierazi dute, zera esanez: “Ez! Besteak garatzeko eta hobetzeko tresna ezin hobea da” (PEGE-I/2.4) (Ikus 1. Eranskina) edo “Ez, berdina edo gehiago ume txikiak direnean.” (PEGE-VI/2.4) (Ikus 6. Eranskina).

Haur hezkuntzan psikomotrizitateko atala lehen hezkuntzako gorputz hezkuntzan espezialitadedun irakasleak ea eman beharko luken galdetutakoan, gehiengoak ezezkoa eman dute “psikomotrizitatea benetan gai horretaz dakien pertsona batek eman beharko luke. Garrantzi gutxi eman zaio beti alor honi eta edozein pertsonak eman izan ohi du. Nire ustez aditu bat behar da” (PEGE-III/2.6)

(Ikus 3. Eranskina) argudiatuz. Baina badago irakasleren bat non lehen hezkuntzako gorputz hezkuntzan espezialitatedun irakaslearen beharra ikusten duen.

Bestetik, ea haur hezkuntzan psikomotrizitatea behar bezain beste lantzen den eta haiek psikomotrizitatea behar bezala lantzeko zer aldatuko luketenari buruz galdetu da. Erantzun gehienak psikomotrizitatea behar bezain beste lantzen ez dela adierazten dute eta horretarako, alde batetik, “Denbora. Badakit hainbat eskoletan ordu eskas bakarra izaten dutela astean. Gutxi dela deritzot, denbora gehiago eskaini beharko litzaioke” (PEGE-III/2.7) (Ikus 3. Eranskina) edo “Ez da nahikoa izaten. Nire kasuan astean behin egiten da eta nire ustez ez da nahikoa, baina ezagutzen ditut egoera kaskarragoak, non psikomotrizitatea bi astetik behin egiten den. Aldatuko nukeena, ordu kopurua izango litzake, ez dakit zehatz mehatz zenbat ordu jarriko nituzke, baina argi dagoena da, umeei gehiago behar dutela” (PEGE-VII/2.7) (Ikus 7. Eranskina) iradoki dute eta, bestetik, espazio gehiagoren beharra dutela adierazten dute:

“Saiatzen gara, batzutan talde kopuruaren arabera ez da egoten espazio fisiko nahikorik, baina zaila da hau konpontzea (PEGE-V/2.7) (Ikus 5. Eranskina).

Ikusi dugun guztia borobiltzeko, galdetu egin da ea ikastetxeetan psikomotrizista lanbidea burutzeko postu bat sortu eta titulu ofizial baten beharra dagoen. Irakasle guztien erantzuna baiezkoa izan da, postu ofizial baten beharra dagoela eta horrek psikomotrizitatean aditua den norbaitek burutu beharko lukeela, horren adibidea irakasle honen erantzuna da:

“Praktika hain garrantzitsu bat izanda ez dakit nola oraindik ez dagoen postu finkorik. Landako eskolan eduki genuen orain dela pilo bat maisu bat soilik psikomotrizitatea ematen zuena, baina ez dut hori inon ikusi. Beharrezkotzat dela pentsatzen dut.” (PEGE-I/2.8) (Ikus 1. Eranskina).

### Jarduera Motorrak Aurrera Eramateko Kapazitatea Ezagutzen

Emaitzen atalarekin bukatzeko, azkeneko kategoria honen galderak pertsonalagoak izango dira. Maisu-maistrei galdetu egin zaie ea psikomotrizitate saioak emateko gaitasunarekin sentitzen diren eta erantzun ezberdinak jaso dira. Badaude, irakasle gutxi batzuk, psikomotrizitate saioak aurrera eramateko kapazak sentitzen direnak, baina zeozer falta zaiela adierazten dute, adibidez, “Ez dut nire burua aditutzat gai honen inguruan, baina gai naizela deritzot. Gustatzen zait saioak ematea, baina agian gehiago ikasi beharko nuke gai honen inguruan” (PEGE-III/3.2) (Ikus 3. Eranskina), edo “Gai banaz, baina agian ez era eraginkorrean. Kurtso bat

daukat eginda psikomotrizitaren inguruan, baina, prestakuntza zehatz bat behar da psikomotrizista izateko eta nik ez daukat.” (PEGE-VII/3.2) (Ikus 7. Eranskina). Bestetik, maisu-maistra gehienek, ez daudela prestatuta “Ez, ez nagoelako prestatuta. Ideia orokorrekin lan egiten dut” (PEGE-I/3.2) (Ikus 1. Eranskina) eta espezialista baten beharra somatzen dutela, “beharbada denborarekin ikasten joan gara, baina askoz hobeto emango luke espezialista batek, argi dago (PEGE-VI/3.2) (Ikus 6. Eranskina) argudiatu dute.

Bestetik, prestakuntza-ikastaroei buruz galdetu egin da eta erantzun ezberdinak jaso dira. Badaude erdia baino zenbait irakasle gutxiago ez dutela prestakuntza-ikastaroetara sartzeko erraztasunik, adibidez, irakasle batek dio “Ez, oso garestiak direlako (pribatuak dira).” (PEGE-I/3.3) (Ikus 1. Eranskina), baina beste erdiak baino gehiago baietz esan digute, badituztela erraztasunak prestakuntza-ikastaroetara sartzeko, nahiz eta batzutan haien egoera pertsonalagatik edo ordutegiagatik ezin diren joan.

Prestakuntza-ikastaroen atalekin bukatzeko, ea ikastarorik egin duten eta zeri buruzkoak galdetu egin denean, gehienek ezetza eman dute, ez dutela prestakuntza-ikastarorik egiten. Baina, bestetik, badaude pare bat irakasle prestakuntza ikastaroak egin dituztenak eta hauek izan dira haien erantzunak:

“Bai, haurren psikomotrizitatea eta garapen kognitiboaren artean dauden loturen inguruko ikastaroa adibidez” (PEGE-II/3.4) (Ikus 2. Eranskina)

“Bai, psikomotrizitatea haur hezkuntzan” (PEGE-VII/3.4) (Ikus 7. Eranskina).

Psikomotrizitate saioak ematea gustokoa duten galderarekin bukatzen da galdetegi hau eta irakasle guztiek baiezko borobila eman dute. Oso gustura daudela umeak disfrutatzen eta behar horiek asetzen ikusten dutelako esan digute, baita umeak modu diferentean azaltzen direlako eta horrek umea ezagutzeko aukera ematen duelako:

“Bai gustoko dut, interesgarria da haurren garapen motorea eta beraien artean nola harremantzen diren ikustea” (PEGE-II/3.5) (Ikus 2. Eranskina)

“Bai, umea ezagutzeko eta laguntzeko tresna potenteak direlako baita ikasleen aurrerapenak ikusteko” (PEGE-V/3.5) (Ikus 5. Eranskina)

## ONDORIOAK

---

Ondorengo lerroetan, lan honetan lortutako emaitzak adituek duten iritziarekin alderatu eta ondorio batzuk aterako dira. Horretarako, emaitzekin egin den moduan, atal hau kategoriaka antolatuta egongo da.

### Irakasleen Profila

Hasteko, psikomotrizista eran jarduteko posturik ezta titulu ofizialik ez dagoenez, galdetegi hau erantzun dutenek gradu ezberdinak dituzte, gehiengoa Haur Hezkuntzako irakasleak izanik. Hau marko teorikoan aipatu dugunarekin bat dator, Berruezok (2000a) dio psikomotrizitatea ez dela unibertsitateko karrera bat eta ez dagoela titulazio ofizialik psikomotrizista gisa jarduteko eta, ondorioz, psikomotrizista bezala lan egiteko aukerarik ez dago, gure herrialdean praktikatzen diren lanbideen katalogoan ez delako aurkitzen, hori dela eta edonor eraman dezake aurrera praktika hau. Bestetik, Heziberri 2020 curriculumaren edukietan, honelako gaiak biltzen dira, hala nola, gorputza eta bere irudia; jokia eta mugimendua; jardura motorrak eta eguneroko bizitza; gorputz adierazpena, psikomotrizitatearekin nahiko lotuta daudenak, nahiz eta curriculum honetan ere "psikomotrizitate" edo "psikomotrizista" hitzak behin ere ez egertu. Egoera honek ez dio ematen inolako espezifikotasunik psikomotrizitateari, hori dela eta, edozein titulazio izanda praktika garrantzitsu hau aurrera eraman daiteke, nahiz eta psikomotrizistaren lana behar ezberdinak dituzten haurrak gidatzeko eta garapen integrala eta haien ongizate pertsonala lortzeko oso garrantzitsua izan. Horretarako, psikomotrizitate praktikari eman behar zaion garrantzia lortu behar da, psikomotrizisten profil profesionalaren gainean eta psikomotrizisten prestakuntzarako curriculum baten garapenean lan eginez, psikomotrizista esku-hartzeko profesional kualifikatua izatea lortuz, Berruezok dioen moduan (2000a): "Jakin badakigulako gure herrialdean, lanbidea sortzeko modu bakarra titulazio baten sorrera delako".

### Praktika Psikomotorren Ezaugarriak

Badakigu, psikomotrizitatea funtsezko praktika dela haurren nortasunean eragiten duten alderdiak garatzeko, hala nola, kognitiboa, afektiboa, soziala eta motorra (Gutiérrez, 2009), baina gure eskoletan ez dira praktika honen garrantziak ohartzen. Inkestatutako gehiengoak astero soilik ordu eta erdiko saioak dituzte eta hori

gutxi balitz, galdetutako irakasleen erdia baino zertxobait gutxiago 15 ume baino gehiago dituzte haien praktikan. Ordu eskasak eta umeen pilatzea, Arnaizek (1991) diona kontuan hartuz, psikomotrizitatea ekintza eraginkorra ez izatea ekarriko du, haurrari ez zaiolako entzungo, nahasteen etiopatogenia tratatuko ez delako eta umeen beharrei erantzuteko tratamendua ez delako elkarrizketan oinarrituta egongo. Azken finean, haurraren beharra asetzeko bere eskariari egokitutako erantzun batzuk proposatu behar dira, haurraren adierazpen askean eta psikomotrizistaren enpatian oinarritutako praktikak, baina dagoen egoera kontuan hartuz praktika psikomotore on bat aurrera eramateko eta haurrari tratu pertsonalizatu bat eskeintzeko ordu gutxi eta ume kopuru nahiko handia dago.

Bestaldetik, gaur egungo maisu-maistren gehiengoak psikomotrizitatea eskolan garatzeko arazo nagusietako bat formakuntza dela aipatu digute. Horrek iradokitzen du unibertsitateetan haurren garapen globalerako psikomotrizitateak suposatzen duen garrantziaz jakin arren, graduak eskeintzen dituen edukiak ez direla nahikoak psikomotrizitate proiektu on bat aurrera eramateko. Hori dela eta, gaur egun, psikomotrizitateari buruzko prestakuntza-programak garatzen ari dira, irakasleen hasierako prestakuntzan oso eskasa delako. Unibertsitateko testuinguruan, adibidez, graduondoko programak egiten ari dira, masterrak, adibidez (Viscarro, Antón eta Cañabate, 2012). Azken finean, Haur Hezkuntzako zentro guztietan psikomotrizitate programa bat burutzeko gai den pertsona baten egona ezinbestekoa da, haurren garapen pertsonala, soziala, motorra eta kognitiboa eraikitzen laguntzen duen pertsona baten egona. Baliteke graduan bertan edo graduondo bat eginez edo etengabeko formakuntzan lortu behar dela gaitasun hori, baina jakina da haurren garapenerako psikomotrizitatea beharrezkoa eta oso onuragarria dela, baita etorkizuneko arazoak ekiditeko, eta maisu-maistrek eduki horiek menperatu behar dituztela. Hori dela eta, psikomotrizista bezala aritzeko lan postu bat sortzea eta praktika honi titulazio espezifiko bat eskeintzea (Lehen Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzan gertatzen den moduan) aproposa izango da, umeen beharrak antzemateko eta esku-hartzeko.

### **Irakasleek Praktikan Jartzen Dituzten Jarduera Motorren Ezaugarri Nagusiak**

Dimentsio horren azterketan aurkitu ditugun emaitzen bidez, esan dezakegu hezitzaileen gehiengoak erabat ados dagoela psikomotrizitatea garrantzi handia duela haurraren garapen globalean eta jakitun direla osagarri gisa balio dezakeela beste arlo batzuk garatzeko, esaterako, arlo kognitiboa, soziala eta emozionala. Inkestatu gehienek uste duten hau, aditu batzuek dagoeneko baieztatu dute. Adibidez, Le

Boulchek 1985ean iadanik esan zuen garapen motorraren %75a haur hezkuntzako etapan gertatzen dela eta eremu horren funtzionamendu (psikomotrizitatea) egokia beste eremuko arloen ikaste prozesua erraztuko duela edo Camargosek eta Macielek (2016) badiote ere, psikomotrizitatea gizabanako batek egiten duen ekintza bat dela, psikearen eta mugimenduen arteko elkarreragina, non garapen global bat bilatzen den alderdi afektibo, kognitibo eta sozialetan oinarritzen dena, norbanakoa bere gorputzaren kontzientzia mugimenduaren bitartez hartzen dihoana.

Hortik jarraituz, psikomotrizitate saioetan maisu-maistra geheienek jolas librean uzten diete umeei, gainera adierazten dute jolasa garapen motorrerako funtsezko giltza dela. Irakasle batek, edozein delarik haren espezialitatea, kontuan izan beharko lukeen zerbait da hau, ezin baita ahaztu Haur Hezkuntzan haurraren garapen globala lortzeko jolasa funtsezkoa eta ezinbesteko baliabidea dela. Adituek ere bat datoz esandakoerekin, Iñaki Larreak (2013), adibidez, Hik Hasi aldizkarian jolasaren garrantziaz mintzo da eta azaltzen du, jolasaren bitartez, haurrak aukera daukala bere burua zein ingurua, fisikoa zein soziala, ezagutzeko. Baita, haurrak munduarekin topo egiten dutela eta haien sentipenak, usteak eta interpretazioak agerian uzteko balio duela.

Gainera, Gutiérrezen (2009) esanetan, jolasak ere irakur-idazmenari, topologiari edo grafomotrizitateari buruzko trebetasunak eskuratzen lagunduko diete. Praktika honen bitartez lortzen dena umea bere gorputza ezagutzea eta bere gorputzarekin mundua ezagutzeko aukera izatea da. Hori dela eta, Gutierrezek dio, etapa honetan jolasak, abestiak eta ipuinak oso garrantzitsuak direla, batik bat, umeraren kapazitate kognitiboa jokoarekin garatzen delako, haurrak errealitatearekin zuzenean harremanetan jartzen direnean eta proposatutako hainbat proposamenen erantzunak bilatzen dutenean.

Bestetik, Pastor Pradillok (2002 eta 2007) eta Mendiara Rivasek (1999) haien lanetan diote, jolas librean soilik aritu beharrean ingurune motorrak planteatu ahal direla, ondoren haurrek haietan jolasean aritzeko. Ingurune horiek haurrei sormen askatasunean jolasteko eta erronka ezberdinak gainditzeko aukera emango die, esplorazio eta ikerkuntzarako egoera motordun irekiak proposatuz, haurren interpretazio pertsonalerako kontsigna irekiak edo joko proposamenak aurkeztuz.

Baita, Mendiara Rivasek (1997) bere doktore-tesian ingurune motorren garrantziaz berba egiten du, esperimentu bat sortuz. Bertan, "Ekintza eta Abentura Espazioak" deituriko ingurune motor batzuk planteatzen ditu, bost joku gune ezberdinekin.

Hori dela eta, inkestatu guztiek onartzen dute oso garrantzitsua dela Haur Hezkuntzan psikomotrizitatea lantzea, orain arte aipatutako egile guztiekin bat etorriz, Psikomotrizitatea arlo desberdinak garatzeko eta haurraren garapen egokia errazteko praktika ezin hobea dela defendatuz. Baina, gaur egungo maisu-maistrek jolas librea soilik erabiltzen dute jarduera motor bezala eta praktika bakar hori urri gelditzen da umeen garapen globalerako. Ikusi dugun moduan, badaudelako, haurraren garapenean esku-hartzeko zenbait jarduera motor ezberdin, umeen beharrei erantzuten dietenak.

Bestaldetik, jolas librean aritzeko erabil ditzakegun hainbat material daude. Inkestatutako maisu-maistrek umeen garapenerako material espezifikoak erabiltzea garrantzitsutzat hartzen dute, baita inguruko materialak ere oso erabilgarriak direla aitortu digute. Gil Madronak, González Víllorak, Contreras Jordánek eta Gómez Barretok (2008) gai honi tiraka, badiote ere, psikomotrizitate gelak ahalbidetzen badu, interesgarria izango litzatekeela esekitako materialak edukitzea, adibidez, sokak, sokazko eskailerak, barrak, espalderak hormetan, etab. birak, altuera batetik jausterakoan edukitako erreflexuak, jarrera tonikoaren kontrola, oreka, koordinazio dinamiko orokorra eta koordinazioa bisomotorra garatzea ahalbidetuko dutenak (Gil Madrona, González Víllora, Contreras Jordán eta Gómez Barreto, 2008). Beste material batzuk ere behar dira, hala nola, puzzleak, pilotak, uztaiak, baloiak, banku suediarak, oihalak, etab.; kolore, forma eta ehunduraren arabera, gorputzaren lanerako balio eta martxan, katamarkan, eskalatzen, orientazio eta espazio egituraketan, mugimenduen koordinazioan, orekan, tonuan, jarreran, erlaxazioan, arnasketan, etab. hobetzen lagunduko dutenak. (Mendiara Rivas, 1999).

Beraz, ikus dezakegu jarduera motorretan erabil ditzakegun hainbat material daudela, eta haien aukeraketa egingo ditugun jarduera motekin, erabilitako metodologiarekin eta helburuekin edo programatutako edukiekin lotuta egongo dela. Orduan, ekintza-proposamenak irakasleen sormenaren, zentroaren baliabideen eta material horien antolaketan eta banaketan araberakoak izango dira.

### **Psikomotrizitatearen Egoerari Buruz Duten Iritzia**

Bitxia egiten da, inkestatutako irakasleek Psikomotrizitateak beste eremu batzuekin alderatuta garrantzi bera edo gehiago duela aitortzen dutenean eta ondoren, haren praktika Haur Hezkuntzako ikasgeletan ez dela nahikoa adieraztean (1:30h astero inkestatutako gehienek). Ikasleen hezkuntzaz arduratzen diren hezitzaileek hain garbi ikusten badute Psikomotrizitatearen lanak haurraren garapen integralerako duen



onuraz (aurreko atalean ikusi dugun moduan), logikoa izango litzateke praktika honi ordu kopurua igotzen saiatzea, horrela, irakaskuntzaren kalitatea hobetuko da. Batez ere, Berruezoren (1995) hitzetan, bizitzaren lehen urteetan haurraren hezkuntza psikomotorra delako eta ordu kopuru gehiago eskeiniz, alde batetik, motrizitate trebetasun horiek garatuko dira, garapen motorraren, afektiboaren eta intelektualaren oinarriak sendotuz. Mugimenduaren bitartez sentimenduak adierazi eta pentsamendu eskemak eraikitzen dira, mundua moldatuz, egokituz eta esploratuz, baita besteekin erlazionatuz ere (Piaget, 1975). Bestetik, denbora emango du, Arnaizek (1991) haurraren garapena egokia bermatzeko adierazten duen modura, haurra ulertzeko eta entzuteko. Horrekin lotuko dena aurreko ezagutzetatik hazten laguntzea da, haurra errespetatuz eta bere globalitatean hartuz, horrela pentsamendu eskema ezberdinak eraikitzen hasiko da, bere gorputzaren eta munduaren ikuskera berenganatuz.

Atal honekin bukatzeko, hezitzaile gehienek pentsatzen dute, aurreko atalean ikusi dugun bezala, Haur Hezkuntzako graduari emandako edukia ez dela nahikoa ikastetxeetan psikomotrizitatea irakasteko. Berez, inkestatutako guztiek pentsatzen dute titulu ofizial baten beharra dagoela, psikomotrizitate lanbidea burutzeko ahalmena ematen duena, praktika horri buruzko ezagutza zehatzak eskainiz. Viscarrok, Antónek eta Cañabatek (2012) ere iritzi hau partekatzen dute irakasleen hasierako formazioan psikomotrizitateari buruzko edukia oso gutxi dela baieztatzean. Hori guztia dela eta, Berruezok (2000a) dio, umeei delikatu den ibilbide honetan baldintza onenetan hasteko, irakasleek gorputzaren ezagutza osoan oinarritutako jarraibideak praktikan jarri behar dituztela. Horretarako, Haur Hezkuntzako graduak etorkizuneko irakasleei beharrezko trebetasunak eskaini beharko lizkiekela psikomotrizitate praktikaren prestakuntzarekin lotuta dauden jarduera profesionalak eta intelektualak garatu ahal izateko.

Honekin, argi gelditzen dena da, Psikomotrizitateak espezifikotasun baten beharra duela, bai lan arloan bai tratamendu metodologikoan eta didaktikoan, gaitasun propioak dituen profesional baten existentzia guztiz justifikatzen duena.

### **Jarduera Motorrak Aurrera Eramateko Kapazitatea Ezagutzen**

Azken dimentsio horren azterketan ikusi dezakegu inkestatuen gehiengoa, nahiz eta formakuntza saioetara joateko aukera eta erreztasunak izan, ez direla Psikomotrizitateari buruzko prestakuntza saioetara joaten. Aitzitik, hainbat egileen arabera gaur egun gero eta interes handiagoa dago Psikomotrizitate arloari buruz, horregatik gai honi buruzko prestakuntza-programak garatzen ari dira, irakasleen

hasierako prestakuntza oso eskasa delako (Viscarro, Antón eta Cañabate, 2012). Horrek bidea ematen digu pentsatzera, zergaitik maisu-maistrei ea psikomotrizitate saioak emateko gaitasunarekin sentitzen diren galdetzerakoan gehienek ez daudela prestatuta erantzutea, haien aldetik, nahiz eta aukerak izan, eta haien inkestean erantzunetan beraiek hori aldarrikatu, ez dagoelako etengabeko formakuntzarik eta graduaren oinarrizko edukiekin ez direlako gai Psikomotrizitate programa bat aurrera eramateko. Hori dela eta, Berruezoren lanari tiraka (2000b), ikuspegi pedagogikoaren esku-hartze psikomotorraren prozesua (programazioa, esku-hartzea, ebaluazioa eta ikaskuntza eskuratzea) era eraraginkor batean praktikara eramateko zailtasunak edukiko dute.

Paradoxa honek, ikusi dugun guztia laburbiltzen du. Inkestatutako maisu-maistra gehienek Psikomotrizitateak haurren garapenean duen garrantzia aitortu eta ezagutu arren, egungo hezkuntzak ez du hori betetzen, Psikomotrizitateari eskainitako orduak ez direlako nahikoak, baldintzak ez direlako onenak eta are garrantzitsuagoa dena, gaitasun propioak dituen espezialista baten irudia beharrezkoa dela ondorioztatu daiteke, gaur egun etorkizuneko irakasleei Psikomotrizitate programa on bat burutzeko beharrezko ezagutza ematen dieten gradurik ez dagoelako.

Bestetik, ikusi da gaur egungo maisu-maistrek Psikomotrizitate programa bat aurrera eramateko zailtasunak dituztela, Psikomotrizitate arloarekiko graduak eskeintzen dituen oinarrizko edukiak eskasak direlako, baina batez ere, haien esfortzuak, Psikomotrizitate praktikarako dagokionez, etengabeko formakuntzarako ezdeusak direlako. Hori dela eta, gaur egungo maisu-maistra gehienek jolas librea erabiltzen dute praktika honetarako, ez dutelako errekurtsorik ezta formaziorik beste era bateko jarduerak aurrera eramateko, adibidez Pastor Pradillok (2002 eta 2007) bere lanetan aipatzen dituen ingurune motorrak edo Mendiara Rivasek (1997) bere doktore-tesian aipatzen duen "Ekintza eta Abentura Espazioak", besteak beste. Hortaz, haurren garapen integralerako eskeintzen dizkien onurak direla medio praktika motor ezberdinak garrantzi handikoak bilakatzen dira, hori dela eta, graduako edukiak eskas gelditu badira, gai honi buruzko prestakuntza-programen igoera aprobetxatu eta etengabe prestatu, umeen garapena delako irakasleen ardura eta horretarako tresnarik egokienak eskaini behar zaizkie, umeak baitira etorkizuneko altxorra.

Ondorioen atal honekin bukatzeko, jakina da, 1920. urtetik aurrera, Enerst Dupré neurologoak psikomotrizitatea termino bezala erabili zuen lehenengo aldia, ia ehun urteko ibilbide honetan, Psikomotrizitateari garrantzi asko eman zaiola, haurren garapen integralerako eta etorkizun batean inolako arazorik ez izateko praktika ezin

hobea bilakatur, eta hainbat autore garrantzitsuen artikulu zientifikoak hori onesten dute. Baita, inkestatuek Psikomotrizitatearen garrantziaz mintzo dira eta ez dute zalantzarik umeen garapen integralean, psikomotrizitatearen bidez arlo guztiak lantzen baitira, laguntzen duela. Orduan, zergaitik jarraitzen du gaur egungo hezkuntza sistemak hain garrantzi gutxi ematen Psikomotrizitate praktikari? zergaitik gaur egungo ikastolek ez dute baliabide nahikorik hain praktika garrantzitsu hau aurrera eramateko? zergaitik astean 25 eskola-ordutik ordu bat eta erdi soilik, batezbestez, eskeintzen zaio praktika honi? esandako guztia kontuan hartzen bada, galdera hauek sobran egongo litzatezke, ezta? baina gaur egungo egoera horrelakoa da eta umeen gorputzarekin lan eginez garapen integrala lortu daitekeela kontzientziatzen ez bada praktika honen etorkizuna ibilbide berbera izango du. Horregaitik, urteetan aditu ezberdinen mezuak, psikomotrizitateak umeei eskeintzen dieten onurak azaltzen dituztenak, kontuan hartzen badira, argumentu nahikoa izango litzateke gaur egungo eta etorkizun hurbil bateko eskoletan Psikomotrizitate praktikari balibide eta ordu kopuru gehiago eskeintzeko, azken finean umeei haien garapen integralean laguntzeko baliabide eta ordu kopuru gehiago.

## MUGAK ETA HOBEKUNTZA PERTSONALAK

---

### Mugak

Lan honen mugarik garrantzitsuena zazpi lagin ezberdinen emaitzekin, eta gainera ikastola bakoitzeko soilik irakasle baten ikuspuntuarekin ikerketa guztia egin dela, momentu askotan lagin gutxi horien erantzunak orokortuz. Ongi egongo litzateke, ikastetxe berdinekin lan eginez, irakasle gehiagoren parte-hartzea, lagin horiek hain eskas ez gelditzeko eta, aldi berean, beste irakasleen ikuspuntua eta haien errealitatea ere kontuan hartzeko, ez soilik ikastetxeko irakasle baten egoera. Baina oso zaila egin da irakasle horiekin kontaktatzea eta haien galdera hauei erantzutea. Egia da denbora gehiagorekin edo beste ikerketa mota batekin pertsona gehiago lortuko zirela, hori dela eta pertsona bateri soilik eskatu zaio galdetegi honi erantzutea.

Beste muga bat galdetegiarena izan da. Morenoren et al. (2004) galdetegiak berrogeita hamabi galdera proposatzen zituen, baita lan honen helburuekin bat ez zetozen galdera asko. Hori dela eta, galdetegiaren galdera batzuk aukeratu, itzuli, kategoria ezberdinetan banatu eta lan honen helburuekin bat bazetozen galdera batzuk erantsi egin ziren. Hori dela eta, eta bertan ez egoteak, galdera horiei erantzuterako orduan irakasle batzuk arazoak edukitzea ekarri zuen, zenbait teknizismo agertzen direlako eta gaizki ulertu batzuk egon zirelako.

### Hobekuntza Proposamenak

Ikerketa amaitu ostean eta emaitzak eta ondorioak ezagututa, etorkizuneko ikerketaren zati izan litezkeen aukera berriak sortzen dira.

Alde batetik, gehiago sakondu ahalko zen irakasleek saio psikomotoreak aurrera eramateko ezaugarriei buruz: zelan banatzen duten saio praktikoen atal ezberdinak, helburu zehatzetarako erabiltzen dituzten materialak, sor daitezkeen zailtasunak eta horiek konpontzeko dauketen modu ezberdinak, ume bakoitzak zer arreta jasotzen duen (espezifikoa edo ez), etab. Hau da, interesgarria litzateke hezitzaileek psikomotrizitatearen onurak eta abantailak eta lan egiteko modu egokia ezagutzen ote duten jakitea. Horretarako, puntu hauek jorratzeko galdetegiaren galderekin elkerrizketa bat eta saio baten behaketa egitea eraginkorra izango zen, irakaskuntza egoeraren ikuspegi zabalagoa eta errealitatera egokituta egotea lortzeko, orokortasunean ez jausteko.

Bukatzeko, etorkizuneko ikerketa baten datuen kalitatea hobetu nahian, galdetegia Durangaldeko eskoletara hedatu beharrean, zonalde konkretu batean

egitea orokortasun horiek alde batera uztea ekarra ahalko zukeen, hau da, Durangon kokatuta dauden 6 eskolara joan eta ikerketa egin, bertan dauden irakasle ezberdinekin elkarrizketak izanez eta haien saio psikomotorrak behatuz. Baita, zuzendariarekin hitz egin daiteke psikomotrizitateak Haur Hezkuntzan duen pisuaz eta eskola horretako egoeraz berba egiteko, horrela zonalde konkretu horretako egoera aztertu ahalko zen, baliabideak eta denborak tartea uzten badute.

## BIBLIOGRAFIA

---

- Arnáiz, P. eta Lozano, J. (1996). *Proyecto curricular para la diversidad. Psicomotricidad y lectoescritura*. Madrid: CCS.
- Arnáiz, P. (1991). *Evolución y contexto de la práctica psicomotriz*. Salamanca: Amarú Ediciones.
- Aucouturier, B. (2004). *Los fantasmas de acción y la práctica psicomotriz*. Barcelona: Graó.
- Berruezo, P.P. (1995). El cuerpo, el desarrollo y la psicomotricidad. *Psicomotricidad. Revista de estudios y experiencias*, 49, 15-26. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://es.scribd.com/document/112529287/Berruezo-Pablo-El-Cuerpo-El-Desarrollo-Y-La-Psicomotricidad>
- Berruezo, P.P. (1996). La Psicomotricidad en España: de un pasado de incomprensión a un futuro de esperanza. *Psicomotricidad. Revista de Estudios y Experiencias*, 53, 57-64. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://core.ac.uk/download/pdf/85002494.pdf>
- Berruezo, P.P. (1999a). Psicomotricidad y educación especial. *Psicomotricidad: Fundamentos teóricos aplicables en la práctica*. Gymnos, Madrid.
- Berruezo, P. P. (1999b). *El psicomotricista, un profesional para las necesidades especiales*. LINARES, PL; ARRÁEZ, JM, A.(eds.): Motricidad y necesidades especiales. Granada: AMNE, 330-340.
- Berruezo, P. P. (2000a). Hacia un marco conceptual de la psicomotricidad a partir del desarrollo de su práctica en Europa y en España. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 37, 21-33. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=118056>
- Berruezo, P. P. (2000b). El contenido de la psicomotricidad. *Psicomotricidad: prácticas y conceptos*. Miño y Dávila editores, Madrid.

- Berruezo, P.P. (2001). El contenido de la Psicomotricidad. Reflexiones para la delimitación de su ámbito teórico y práctico. *Revista iberoamericana de psicomotricidad y técnicas corporales*, 1, 39-48. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/download/articulo/2707331.pdf>
- Berruezo, P.P. (2006). Presente, pasado y futuro de la psicomotricidad. *Revista Iberoamericana de Psicomotricidad y Tecnicas Corporales*, 22, 26-36. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3734855>
- Calvo, Q.D. (1990). *Psicomotricidad: Una propuesta de actividades lúdicas para el desarrollo psicomotor*. Madrid: Seco Olea.
- Camargos, E.K. eta Maciel, R. (2016). La importancia de la psicomotricidad en la educación de los niños. *Revista científica multidisciplinaria base de conocimiento*, 9, 254-275. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://docplayer.es/115460912-La-importancia-de-la-psicomotricidad-en-la-educacion-de-los-ninos.html>
- Consejo, C. (2013). *La psicomotricidad y educación psicomotriz en la educación preescolar*. Web-gune honetatik berreskuratua: [educacionpersonal.com](http://educacionpersonal.com)
- Durivage, J (2005). *Educacion y psicomotricidad*. Madrid: Trillas.
- Españaiko Estatua. 2059/1995 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako goi mailako teknikari titulua ezarri eta gutxieneko irakaspenak finkatuta daudenak. BOE, 1996ko otsailaren 22a.
- Euskal Autonomia Erkidegoa. 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezertzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15a.
- Garcia Nuñez, J.A. eta Fernandez Vidal, F. (2013). *Juego y psicomotricidad*. Madrid: CEPE edi.

- Gil Madrona, P., Contreras Jordan, O.R. eta Gomez Barreto, I. (2008). Habilidades motrices en la infancia y su desarrollo desde una educación física animada. *Revista iberoamericana de educación*, 47, 71-96. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://rieoei.org/historico/documentos/rie47a04.htm>
- Gil Madrona, P., Contreras Jordán, O. R., González Vllora, S. eta Gómez Barreto, I. (2008). Justificación de la educación física en la educación infantil. *Educación y Educadores*, 11, 159-177. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2859453>
- Gutiérrez, A. (2009) La importancia de la educación psicomotriz. *Revista digital innovación y experiencias educativas*, 24, 1-9. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://core.ac.uk/download/pdf/85002494.pdf>
- Jolasa oso kontu serioa da. (2013ko uztailaren 11an). Hik Hasi. Web-gune honetatik berreskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20130711/jolasa-oso-kontu-serioa-da>
- Lázaro, A., Palomero, J.E. eta Fernandez, M.R. (2000). La psicomotricidad y su desarrollo en el umbral del siglo XXI. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 37, 15-20. Web-gune honetatik berreskuratua: <http://aufop.com/aufop/revistas/arta/impres/80/395>
- Mendiara Rivas, J. (1997). *Educación física y aprendizajes tempranos. Contribución al desarrollo global de los niños de 3 a 6 años y estudio de sus estrategias de aprendizaje en espacios de acción y aventura* (tesi doktora). Universidad de Zaragoza, España.
- Mendiara Rivas, J. (1999). Espacios de Acción y Aventura. *Educación Física y Deporte*, 56, 65-70. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=294689>
- Mendiara Rivas, J. (2008). La Psicomotricidad Educativa: un enfoque natural. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 62 (22), 175-198. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2707451>



- Muniain, J.L. (1997). Noción/Definición de Psicomotricidad. *Psicomotricidad, Revista de Estudios y Experiencias*, 55, 53-86.
- Otero, N. (2009). El juego como medio de estimulación educativa. *Cuadernos de Educación y Desarrollo*, (9). Web-gune honetatik berreskuratua: <https://ideas.repec.org/a/erv/cedced/y2009i96.html>
- Palomero, J. E. (2007). La psicomotricidad en España en el contexto de la convergencia universitaria europea. *Revista iberoamericana de psicomotricidad y técnicas corporales*, 25, 117-132. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3692190>
- Pastor Pradillo, J. L. (2002). El concepto de educación vivenciada y las posibilidades interdisciplinarias de las actividades físicas. *Pulso: revista de educación*, 25, 217-230. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=244115>
- Pastor Pradillo, J. L. (2007). *Fundamentación epistemológica e identidad de la educación física*. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2493194>
- Piaget, J. (1975). *El nacimiento de la inteligencia en el niño...*, Madrid: Aguilar ed.
- Rigal, R. (2006). *Educación motriz y educación psicomotriz en preescolar y primaria*. Barcelona: Inde.
- Rubiano, D. I. (1997). *El niño y el juego en la escuela*. Documento de trabajo Ministerio de Educación Nacional. Bogotá: M.E.N.
- Sánchez, J. eta Llorca, M. (2001). El rol del psicomotricista. *Revista Iberoamérica de Psicomotricidad y Técnicas Corporales*, 3, 57-76. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3748003>
- Sugrañes, E. (2007) *Educación Psicomotriz (3-8 Años)*. Barcelona: Grao.

Thomas, J. R. y Nelson, J. K. (2007). *Research Methods in Physical Activity*. Estatu Batuak: Human Kinetics.

Viscarro, I., Antón, M., eta Cañabete, D. (2012). Perfil y formación de los profesionales que realizan la práctica psicomotriz en la etapa de educación infantil. El caso de las comarcas de Tarragona. *Educar*, 48, 321-344. Web-gune honetatik berreskuratua: <https://www.raco.cat/index.php/Educar/article/view/259366>

Wallon, H. (1978). *Del acto al pensamiento*. Psique, Buenos Aires.

## ERANSKINAK

### 1. Eranskina / PEGE-I:

#### **PSIKOMOTRIZITATERAREN EGOERA GAUR EGUN**

